JEAN-JACQUES ROUSSEAU (1762):

BIKARIO SAVOIARRAREN FEDE-AITORTZA

Seme, ez ezazu espero mintzaldi jantzirik, ezta arrazoibide sakonik ere nigandik. Ez naiz filosofo handi bat, eta horretara ailegatzeak ere ez nau kezkatzen. Baina aldian behin sen ona izateaz gain, egia maite izan dut beti. Ez dut zurekin eztabaidan hasi nahi, ezta zu konbentzitzen saiatu ere; aski dut pentsatzen dudan guztia bihotz apalez zuri esatea. Entzun iezaiozu zeure bihotzari nire kontakizunak aurrera egin ahala; horixe da eskatzen dizudan bakarra. Oker ari banaiz ere, fede onez baino ez da izan; hori nahikoa litzateke nire krimenaren errua ez leporatzeko; halaxe, zu ere deskuidatzen bazara, kalte txikia litzateke: oker ez banago, biok ditugu arrazoi bera eta hura aditzeko jakin-min berbera; zergatik ez zenuen nik bezala pentsatu behar?

Pobre eta laborari jaio nintzen, lurra lantzeko behartuta jaiotzez; baina uste izan zuten hobe zela ogia irabazteko apaiz-ofizioa ikastea, eta bilatu zuten modua ikas nezan. Seguru asko, ona, egiazkoa eta baliagarria zena bilatzeko inolako asmorik ez genuen izan ez nik, ezta nire gurasoek ere, apaiz ordenatzeko jakin behar nuen hartaz gainera. Ikasi ere, nahi izan zutena ikasi nuen, eta esan ere, nahi izan zutena baino ez: nahi izan zuten bezala konprometitu nintzen eta apaiz ordenatu ninduten. Baina, neure burua gizon izateari uztera behartu nuenean, laster sentitu nuen hitzemandakoari ezin izango niola luzaz eutsi.

Kontzientzia aurreiritzien fruitu dela esaten zaigu; hala eta guztiz, esperientziaz badakit kontzientzia, gizakion lege guztien kontra, naturaren ordenari jarraitzen tematzen dela. Nahiz hori nahiz bestea defendatu, barruko harrak beti aurpegiratzen digu, ahuleziaz bada ere, ongi antolatutako naturak baimentzen diguna eta, arrazoi handiagoarekin, naturak agintzen diguna. Ene gazte ona! Naturak ez die oraindik deus ere azaldu zure zentzumenei; xalotasunaren egoera zoriontsuan bizi zaitez denbora luzean; gogora ezazu inozentziari kalte handiagoa egiten zaiola haren aurkako neurriak hartzen direnean eraso egiten zaionean baino; jasaten ikasi behar da lehendabizi, delituan ez erortzeko.

Gaztetatik, ezkontza errespetatu dut, naturako erakundeen artean lehenbizikoa eta santuena den aldetik. Haren mendean jartzeko eskubidea ukatua izan zaidanez, debeku hori ez urratzea erabaki nuen; eta eskolak eta ikasketak jaso arren, bizitza xumea eta aldaezina dela medio, hain gorderik nuen oinarrizko argien gardentasuna ez zuten ilundu munduko sasi-ezagutzek, eta nire txirotasunak urrundu ninduen bizitzak ezartzen dituen amarruetatik.

Eta erabaki horrek galdu ninduen; hurkoaren ohea errespetatzeak agerian utzi zituen nire hobenak. Eskandalua ordaindu beharra zegoen: atxilotua, debekatua, harrapatua, nire eskrupuluen biktimago izan nintzen, nire eutsiezinarena baino; eta, nire zorigaitzarekin iritsi zitzaizkidan kezketan murgilduta, ez nuen urrutitik ere susmatu askotan zigorrari ihes egiteko nahikoa dela akats larriagoa egitea.

Hausnartzen duen espirituak ez du bide luzerik egingo tankera horretako esperientziak lagunduta. Ohar triste batzuen eraginpean, zuzena denaz, ondratu denaz, eta gizonaren betebehar guztiez nituen ideiak errotik aldaturik ikusiz, jaso nituen iritziak banan-banan galdu nituen: gelditu zitzaizkidanekin ez zegoen bere kabuz ibiliko zen gorputza osatzerik, nire printzipioen ebidentzia pixkanaka lausotzen ikusi nuen, eta, neure burua ezer pentsatzeko ere mugaturik antzemanda, zu zauden ataka berberera heldu naiz; tartean alde hau dago baina: nire sinesgabetasuna heldutasunera iritsi ondoko fruitu berandukoa eta astiro umotua denez, errotik ateratzeko zailagoa da.

Descartesek egia bilatzeko eskatzen duen ziurgabetasunezko eta zalantzazko egoera horretan nengoen. Baina halako egoerak ez du luze irauterik, kezkagarria eta nekeza da, eta bizioaren interesa edota arimaren alferkeria baino ez zaigu geratzen. Bihotza ez nuen horren usteldurik horretaz gozatzeko; eta gogoetarako ohiturari eusteko ez dago deus hoberik: hobe da norberarekin pozik egotea, norberaren fortunarekin baino.

Hala bada, giza iritzien zurrunbiloan lemarik eta iparrorratzik gabe, grinen erauntsien mende, bidearen nondik norakoaz ezer ez dakien pilotu hasiberriaren gidaritza besterik ez duten hilkorren zorigaiztoaz jarduten nuen pentsatzen. Neure buruari esaten nion: egia maite dut, bilatu egiten dut, baina gero ezin dut bereizi; erakuts diezadatela eta estu besarkatuko dut: zer dela eta ezkutatzen zaio hura gurtzeko egina den bihotz arduratsuari?

Nahiz gaitz handiagoak ezagututa nagoen, ez dut sekula bizimodu latzagorik izan orduko nahaste- eta larritasun-garai hartan baino; orduan, zalantzatik zalantzara errari, nire izatearen inguruan eta nire betebeharren arauari buruzko meditazio luzeetan ezbaian, iluntasuna eta kontraesanak besterik ez nuen aurkitu.

Nolatan izan daiteke inor berez eszeptikoa eta fede onekoa? Ez dut ulertzen. Filosofo horiek, edo ez dira existitzen, edo gizon guztien artean zorigaiztokoenak dira. Inporta zaizkigun gauzen inguruko ezagutzaz zalantza egitea egoera bortitzegia da giza espirituarentzat: zalantzak ez du luze irauten; bere gogoz kontra era batera edo bestera erabakitzen du, eta nahiago izaten du oker egin ezer ez sinetsi baino.

Dena erabakitzen duen eta zalantzari inolako zirrikiturik uzten ez dion Eliza batean jaio izana nuen nahasmen-iturri; puntu bat bakarra arbuiatzeak gainerako guztiak arbuiatzera ninderaman; horrenbestez, nire egonezina handitzen zen, eta hainbeste erabaki zentzugabe onartezinek bestelakoak ere baztertzera eraman ninduten. Eta neure buruari «sinets ezak guztia» esaten banion ere, sinesmen hori eragozten zidaten, eta non gelditu ez nekien.

Filosofoak kontsultatu nituen, haien liburuak gainetik irakurri, eta haien iritziak aztertu nituen; harroak aurkitu nituen, zalantza gabeak, dogmatikoak, haiek defendatutako ustezko eszeptizismoan ere, guztiaren jakitun, batzuek besteei burla egiten, ezer ere frogatu gabe; eta ezaugarri komun horretan bakarrik zutela arrazoi iruditu zitzaidan. Erasoan garaile, baina indarrik gabe defentsan. Erreparatu haien arrazoiei, suntsitzeko baino ez dira eta; kontatu ahotsak: bakoitza bereari lotzen zaio**;** eta eztabaidatzeko baino ez dira ados jartzen; haien jardunak ez zion irtenbiderik ematen nire zalantzari.

Nik uste dut giza espirituaren eskasia, halako aniztasun-sentimendu harrigarri horren lehen iturria dela eta harrokeria, bigarrena. Guk ez dugu makina erraldoi horren neurririk, ezin baitugu ondoriorik kalkulatu; ez ditugu ezagutzen ez lehenbiziko legeak, ezta azken kausa ere; ez dugu geure burua ezagutzen; ez dugu ezagutzen ez geure natura, ezta geure printzipio eraginkorrik ere; gizakia izaki sinple ala konposatua den ere zehazki ez dakigu; misterio ulertezinez inguratuta gaude alde guztietatik, zentzumenen eremuaren gainetik daude; horiez jabetzeko adimena dugula uste dugu, eta irudimena besterik ez dugu. Irudimenezko mundu horretan, nork bere bidea egiten

du ustez egokia delakoan; helburura daraman ala ez inork ez du jakiterik. Hala ere, denean sartu, dena ezagutu nahi izaten dugu. Ez dakigun gauza bakar-bakarra zera da: jakin dezakegunaren berri ez dugula. Nahiago izaten dugu zoriaren esku utzi geure burua eta ez den horretan sinetsi, gure arteko batek ikus dezakeena existitzen dela aitortu baino. Osotasun handi baten atal txikia gara, mugek ihes egiten digute, eta egileak gure eztabaida eroen eskutik uzten gaitu; hutsalegiak gara osotasun hori bere baitan zer den erabakitzeko, eta berarentzat zer garen ondorioztatzeko.

Filosofoak egia aurkitzeko puntura iristen direnean, haien artetik zeinek izango du interesik horren inguruan? Bakoitzak ongi daki bere sistemak ez duela besteena baino oinarri sendoagorik; hala eta guztiz ere, eutsi egiten dio, berea delako. Egiazkoa eta faltsua dena ezagutzera iritsi direnen artean, ez dago bat bera ere, beste batek aurkitutako egiaren aurrean, norberak aurkitutako gezurra nahiago ez duenik. Non da, bere ohoretan, giza generoa jakinaren gainean nahasiko ez lukeen filosofoa? Non, bihotzondoan, nabarmentzea beste helbururik ez duenik? Jende xeheari gaina hartzearren, lehiakideen distirari itzala egitearren, zer gehiago eskatzen du? Garrantzitsuena besteek ez bezala pentsatzea da**.** Sinestunen artean sinesgabea da, sinesgabeen artean sinestuna.

Gogoeta horietatik atera nuen lehenbiziko fruitua izan zen ikerketak nire hurbileko interesei zegokien gaietara mugatzea, gainerako guztiari buruzko ezjakintasun sakona soseguz hartzea, eta zalantzaz barik jakin beharreko gauzez kezkatzen jakitea.

Gainera, ikasi nuen filosofoek nire alferrikako zalantzetatik askatu ez eta, aitzitik, nahigabeak gehitu egingo zizkidatela, eta ezer ez zidatela konponduko. Beste gidari batengana jo nuen, eta neure buruari esan nion: errepara diezaiogun barneko argiari, ez bainau filosofoek bezainbeste nahasiko, eta, gutxienez, akatsa nirea izango da, eta neure ilusioei jarraituz gutxiago ustelduko naiz, haien gezurrei lotuta egonik baino.

Orduan, neure espirituan jaiotzetik eragina izan duten askotariko iritziak aztertuz, nahiz eta haietako bat bera ere guztiz gauza ez izan berehala inor konbentzitzeko, ohartu nintzen zenbaitek bazutela egiantzekotasun-mailako zerbait, eta ikusi nuen nire barrenak haietako batzuk onartu egiten zituela, eta beste batzuk ez, era batera edo bestera. Lehenbiziko ohar horretan oinarrituz, aurreiritzien isilean ideia horiek guztiak

haien artean konparatuz, zera aurkitu nuen, lehenbizikoa eta arruntena sinpleena eta arrazoizkoena ere bazela, eta, guztien sufragioa biltzeko, proposatzen azkena izan behar lukeela. Imajina itzazu zure aurreko nahiz modernitateko filosofo guztiak indarraz, zoriaz, patuaz, beharraz, atomoez, mundu bizidunaz, materia bizidunaz eta era guztietako materialismoez osatutako sistema arraroak agortu ondoren, eta, haien guztien atzetik, Clarke ospetsua mundua argitzen, izakien Izakia eta gauzen banatzailea iragarriz. Zeinen miretsirik, zer-nolako aho bateko onespenarekin hartuko zen halako sistema berri bat, hain handia, hain kontsolagarria, hain sublimea, hain egokia arima altxatzeko eta bertuteari oinarria emateko, eta, era berean, hain deigarria, hain argitsua, hain sinplea, zeinak, hala iruditzen zait, giza espirituari gauza ulertezin gutxiago eskainiz gainerako sistemetan absurdoak baino aurkitzen ez baititu! Neure buruari esaten nion: zalantza erabakiezinak berdinak dira gizaki guztientzat, gizakiaren espiritua mugatuegia dago konponbidea bilatzeko; zalantza horiek ez dute lehentasunik agertzen inorekin: alde bakarra zuzeneko frogetan datza! Baina beste guztiak baino zailtasun gutxiago erakusten baldin badu, ez al genuke nahiago izan behar guztia azaltzen duen bakar hura?

Filosofia bakarra: egiari diodan maitasuna eta metodotzat argudioen zorroztasun hutsaletik askatuko nauen arau erraz eta sinple bat; eta arau horren arabera, interesatzen zaizkidan ezagutzak aztertzeari ekiten diot berriro, eta bihotzaren zintzotasunean baztertu ezingo nituzkeenak begi-bistakotzat jotzea erabakitzen dut, eta horiekin beharrezko loturaren bat luketenak egiazkotzat hartuko ditut, eta gainerakoak baztertu edo onartu gabe utziko ditut, horiek argitzeaz arduratzen hasi gabe, ez baitira baliagarriak praktikarako.

Baina, nor naiz ni? Ba al dut nik gauzak epaitzeko eskubiderik? Zerk mugatzen ditu nire epaiak? Jasotzen ditudan inpresioek eragiten badituzte epai horiek alferrikakoak dira nire ikerketa guztiak, ez baitira inola ere egingo, eta egingo balira nik ezingo nituzke inora zuzendu. Beraz, lehenbizi, nigana itzuli behar dut begirada, erabili nahi dudan lanabesa ezagutzeko eta haren erabileraz zenbateraino fida naitekeen jakiteko.

Existitzen naiz eta nigan eragina duten zentzumenak ditut. Horra hunkitu nauen eta onartzera behartuta nagoen lehenengo egia. Ba al dut nik neure existentziaren berezko

sentimendurik, ala nire sentipenetatik jasotzen dudana baino ez da? Horra nire lehenbiziko zalantza, erantzunezina niretzat orain arte: uneko nahiz oroitutako sentipenen eraginpean etengabe egonda, nola jakin dezaket niganako sentimendua sentipen horietatik bereiz dagoen eta haiekiko independente izan daitekeen?

Nire sentipenak nigan gertatzen dira, nire existentzia sentiarazten didate eta; baina haien kausa arrotza zait, eta, horrela izan arren, eragina dute nigan, baina ez dago nire esku haiek sortzea ezta desegitea ere. Hortaz, nik argi asko ulertzen dut ez direla gauza bera ni izatearen sentipena eta nigandik kanpo dagoen horren arrazoia edo objektua.

Horiek horrela, ez naiz ni bakarrik existitzen, badira beste izaki batzuk ere, jakina, nire sentipenen objektuak; eta objektu horiek ideiak besterik ez diren neurrian, guztiz egiazkoa da ni ez naizela ideia horiek.

Nigandik kanpo sentitzen dudan guztiari eta nire zentzumenetan eragina duenari materia deritzot; eta nik imajinatzen ditudan izaki indibidualetan bildutako materia-zatiei, gorputza. Hortaz, idealisten eta materialisten arteko eztabaida guztiek ez dute ezer esan nahi niretzat, eta kimerak besterik ez dira gorputzen itxuraren eta errealitatearen artean egiten dituzten bereizketak.

Hemen nauzu, askoz seguruago unibertsoaren existentziaz neureaz baino. Ondoren, nire sentipenen objektuez pentsatu dut, eta, haien artean konparazioak egiteko gaitasuna dudala ohartuta, lehenagotik ezagutzen ez nuen indar aktibo batez jantzita sentitu naiz.

Bereiztea, sentitzea da; konparatzea, epaitzea: sentitzea eta epaitzea ez dira gauza bera. Sentipenaren eraginez, objektuak banatuta, isolatuta, naturan diren bezala eskaintzen zaizkit; konparazioaren bidez, nik mugitzen ditut, garraiatzen ditut; esate baterako, bata bestearen gainean jartzen ditut haien arteko desberdintasunaz edo antzekotasunaz aritzeko, eta, oro har, haien arteko harremanez iritzia emateko. Niretzat, izaki aktiboaren edo adimentsuaren fakultate bereizgarria *izan* hitzari zentzua eman ahal izatea da. Alferrik bilatzen dut izaki guztiz sentiberan indar adimentsu hori, lehenbizi gainean jarri eta ondoren iritzia emateko gai dena, ezingo nuke halakorik bere naturan ikusi. Halako izaki pasiboak objektu bakoitza banatuta sentituko du, edo

bik eratutako objektu osoa sentituko du, baina inolako indarrik ez duenez ezin izango du berriz tolestu bata bestearen gainean, ez ditu inoiz konparatuko, ez ditu inola ere epaituko.

Bi objektu batera ikustea ez da haien erlazioak ikustea bakarrik, ezta haien arteko desberdintasunak epaitzea ere; hainbat objektu besteetatik bereiztea ez da haiek izendatzea. Nik une berean eduki dezaket makila handi baten ideia eta makila txiki batena, biak konparatu gabe, bata bestea baino txikiagoa dela epaitu gabe, nire esku osoa nire atzamarrak kontatu gabe ikus dezakedan bezala. Konparaziozko ideiak (handiagoa, txikiagoa), zenbakizko ideiak bezalaxe (bat, bi, eta abar), ez dira egiazki sentipenak, nire espirituak sentipenekin batera sortzen dituen arren.

Izaki sentiberek sentipen batzuen eta besteen artean, haien arteko desberdintasunetan oinarrituta, bereizketak egiten dituela esaten zaigu: horrek azalpen bat eskatzen du. Sentipenak desberdinak direnean, izaki sentiberak haien arteko desberdintasunei esker bereizten ditu: antzekoak direnean, batzuk besteetatik kanpo sentitzen dituelako bereizten ditu. Bestalde, batera agertzen den sentipen batean, nola bereiziko lituzke berdinak diren bi objektu? Bi objektu horiek nahasi beharko lituzke nahitaez, eta bakartzat hartu, batez ere hedatuaren sentipenak batere hedatuak ez diren sistema batean.

Konparatu nahi diren bi sentipenak hautematen direnean, haien inpresioa jaso da, objektu bakoitza sentitu da, biak sentitu dira, baina haien arteko harremana ez da horregatik sentitu. Harreman horren epaia sentipen bat besterik ez bada eta bakarrik objektutik badatorkit, nire epaiek ez naute inoiz nahasiko, eta nik sentitzen dudana nik sentitzen dudala ez da sekula gezurra izango.

Zer dela eta nahasten naiz ni, bada, bi makila horien arteko harremanarekin, paraleloak ez direnean, batez ere? Zergatik esaten dut, esaterako, txikia handiaren herena dela, laurdenera iristen ez denean? Zer dela eta, irudia, sentipena dena, ez dator bat objektuaren ereduarekin? Kontua da aktiboa naizela epaitzen dudanean, eta konparazioa egiten duen eragiketa okerra dela, harremanak epaitzen dituen nire adimenak bere akatsak nahasten baititu objektuak soilik erakusten dituen sentipenen egiarekin.

Gehitu iezaiozu horri segur aski berehala txundituko zaituen hausnarketa bat: gure zentzumenen erabileran guztiz pasiboak izango bagina, ez legokeela haien arteko inolako komunikaziorik; eta ezin jakin genezake ukitzen dugun gorputza eta ikusten dugun objektua gauza bera direla. Hortaz, edo ez genuke inoiz deus ere sentituko guregandik kanpo, edo bost substantzia sentibera egongo lirateke guretzat, eta ez genuke inolako modurik izango haien izaerez jabetzeko.

Eman diezaiotela izen hau ala bestea nire espirituaren indar horri, nire sentipenak bildu eta konparatzen dituenari; dei diezaiotela arreta, meditazioa, gogoeta edo nahi duten bezala; beti da egia nigan dagoela eta ez gauzetan, nik neuk bakarrik sortzen dudala, nahiz eta objektuek nigan eragiten duten inpresioaren bidez sortu. Sentitzearen edo ez sentitzearen jabe ez naizen arren, banaiz gauza sentitzen dudana gutxi gorabehera aztertzeko.

Beraz, ni ez naiz izaki sentibera eta pasibo hutsa, izaki aktibo eta adimentsua baizik, eta filosofiak edozer esanda ere, pentsatzearen ohorea niretzat galdatzera ausartuko naiz. Izan ere, jakin badakit egia gauzetan dagoela eta ez haiek epaitzen dituen nire espirituan, eta egiten ditudan epaietan nirea denetik zenbat eta gutxiago jarri, orduan eta gertuago egongo naizela egia neureganatzetik; hortaz, arrazoiari baino sentimenduari gehiago lotzearen aldeko nire araua arrazoiak berak baieztatzen du.

Nolabait esateko, nitaz seguru nagoenean, nigandik kanpora begiratzen hasi eta, ikarak hartuta, unibertso zabal horretan galduta egoten naiz, izakien handitasunean itota bezala, izaki horiek zer diren jakin gabe, ez haien artean, ezta horiek nirekiko ere. Nik aztertzen ditut, ikuskatzen ditut, eta horiek konparatzeko aurkezten zaidan lehenbiziko objektua ni neu naiz.

Zentzumenen bidez hautematen dudan guztia materia da, eta materiaren berezko ezaugarri guztiak hautemateko aukera ematen didaten eta banaezinak diren nolakotasunetatik ondorioztatzen ditut. Batzuetan mugitzen ikusten dut, beste batzuetan atsedenean, hortik ondorioztatzen dut materian atsedena eta mugimendua ez direla esentzialak; baina mugimendua, akzioa den aldetik, kausa baten ondorio da, eta atsedena, mugimendu eza. Materian ezerk eraginik ez duenean, ez da mugitzen,

eta orduan ez zaio axola gelditasuna eta mugimendua: haren egoera naturala geldi egotea da.

Gorputzetan bi mugimendu mota hautematen ditut: mugimendu komunikatua, eta berezko mugimendua edo borondatezkoa. Lehenengoan, mugimenduaren kausa mugitutako gorputzetik kanpo dago, eta, bigarrenean, beraren baitan. Ez dut hortik ondorioztatuko erloju baten mugimendua, esaterako, berezkoa denik; mekanismoari kanpoko ezerk eragingo ez balio ez litzateke berriro abiatuko, eta ez lioke kateari tira egingo. Arrazoi berbera dela eta, izan ere, ez dut inola ere onartuko fluidoen berezkotasuna, ezta haien jariakortasuna eragiten duen suarena ere.

Zuk galdetuko didazu ea animalien mugimenduak espontaneoak diren; nik horretaz ezer ere ez dakidala erantzungo dizut, baina, analogiaz, baiezkoaren alde joko nuke. Zuk, hala ere, galdetuko didazu nola jakin dezakedan nik mugimendu espontaneoak dauden ala ez; nik erantzungo dizut sentitzen ditudalako dakidala. Nire besoa mugitu nahi dut eta mugitzen dut, mugimendu horren zuzeneko kausa nire borondatea baino ez dela. Alferrikakoa da nigan dagoen sentimendu hori suntsitzeko arrazoitu nahi izatea: edozein ebidentzia baino indartsuagoa da; ez naizela existitzen frogatu nahi izatea bezalakoxea litzateke.

Gizakien ekintzetan eta lurrean egiten den ezertan ere inolako naturaltasunik ez balego, askoz zailagoa izango litzateke mugimendu ororen arrazoia imajinatu ahal izatea. Materiaren egoera naturala atsedenean egotea dela eta berez ez duela jarduteko inolako indarrik argi asko dakidan neurrian, gorputz bat mugitzen ikusten dudanean, zera ondorioztatzen dut: edo gorputz biziduna da edo mugimendua komunikatu zaio. Nire espirituak ez du onartzen berez mugitzen den edo nolabaiteko jarduna sortzen duen inolako antolamendurik gabeko materiarik.

Baina ikus daitekeen unibertso hau materia da, materia barreiatua eta hila, eta bere osotasunean ez du gorputz bizidun baten batasunaren, antolamenduaren eta parteen arteko inolako sentimendu komunik, eta egia da horren parte garenok ere ez garela osotasun horren barnean sentitzen. Unibertsoa bera ere mugitzen ari da, eta mugimendu arautu, uniforme, etengabeko legeen menpeko horietan, ez dago gizakien edo animalien berezko mugimenduetan agertzen den askatasun apurrik ere. Hortaz,

mundua ez da berez mugitzen den animalia handia; haren mugimenduek nolabaiteko eragile arrotza dute, nik hautematen ez dudana; barne-pertsuasioak halako moldez bihurtzen du sentigarri kausa hori, ezin baitut eguzkia higitzen ikusi hura bultzatzen duen indar bat imajinatu gabe, edo lurra ikusi, baldin eta bira egiten badu, biraka eragiten dion esku bat sentitu gabe.

Zer aurreratuko dut materiarekiko funtsezko harremanei buruz nik hautematen ez ditudan lege orokorrak onartu behar badira? Lege horiek ez dira benetako izaki errealak, ez dira substantziak, eta ezezagun zait horien oinarria. Esperientziak eta behaketak mugimenduaren legeak ezagutzeko aukera eman digute; lege horiek ondorioak mugatzen dituzte kausak erakutsi gabe; ez dira nahikoa munduaren sistema eta unibertsoaren bidea azaltzeko. Descartesek zerua eta lurra osatzen zituen dadoekin; baina ezin izan zien lehenengo bultzadarik eman dado horiei, ezta indar zentrifugoa abian jarri ere errotazio-mugimenduaren laguntzarik gabe. Newtonek erakarpenaren legea aurkitu zuen; baina erakarpenak unibertsoa masa mugiezina izatera soilik eramango luke: lege horri falta zitzaion, zeruko gorputzek kurbak egin ahal izateko, indar bultzatzaile bat gehitzea. Esan diezagula Descartesek zer lege fisikok iraultzen dituen haren zurrunbiloak; erakuts diezagula Newtonek zer eskuk bota dituen planetak beren orbiten tangentera.

Mugimenduaren lehenengo kausak ez daude materian; horrek mugimendua jaso eta komunika dezake, baina ezin du sortu. Zenbat eta gehiago behatu naturan batzuen eta besteen gainean eragina duten indarren akzioari eta erreakzioari, orduan eta argiago ikusten dut efektutik efektura beti lehenengo kausa bezalako nolabaiteko borondatera jo behar dela; eta infiniturainoko kausen progresioa suposatzea ez da deus ere suposatzea. Hitz batez, beste batek sortu ez duen mugimenduak ekintza espontaneoa, borondatezkoa, izan behar du; gorputz bizigabeek ez dute jarduten mugitzean ez bada, eta ez dago egiazko ekintzarik borondaterik gabe. Horra nire lehenbiziko printzipioa, sinesten dut Unibertsoa mugitzen duen eta natura animatzen duen borondate bat dagoela. Horra nire lehenengo dogma edo nire lehenengo fede-artikulua.

Nolatan sor dezake borondate batek gorputzaren akzio fisiko bat? Ez dakit, baina nigan frogatzen dut hark sortzen duena. Jardun nahi dut eta ari naiz; nire gorputza mugitu

nahi dut eta nire gorputza mugitzen da; baina gorputz bizigabe eta geldi bat berez mugitzea edo mugimendua sortzea, hori ulertezina da, eta ez dago horren frogarik. Borondatearen ekintzak ezagutzen ditut, baina ez haren izatea. Mugimenduaren kausa gisa ezagutzen dut borondate hori; baina materia mugimenduaren eragiletzat jotzea kausarik gabeko ondorio bat suposatzea da, hau da, ezer ez suposatzea.

Ezin dut suposatu nire borondateak nola mugi dezakeen nire gorputza, ezta nire sentipenek nola eragiten dioten nire arimari ere. Ez dakit zer dela eta misterio horien artean bata bestea baino errazagoa zaidan azaltzen. Nire kasuan, bai pasibo naizenean, bai aktibo naizenean ere, guztiz ulertezina zait bi substantziak batzeko duten modua. Guztiz arraroa da ulertezintasun horretatik hastea bi substantzia horiek nahasteko, hau da, hain izaera desberdineko operazioak subjektu batekin birekin baino hobeto azaltzea.

Egia da ezarri berri dudan dogma iluna dela; baina azkenean esanahi bat eskaintzen du, eta ez die inolako kalterik egiten ez arrazoiari ezta behaketari ere: gauza bera esan al daiteke materialismoaz? Ez al dago argi mugimendua materiaren berezko ezaugarria balitz, banaezina izango zela, beti maila berekoa, beti materia berbera atal bakoitzean, komunika ezina, eta ezin izango zela ez handitu ez txikiagotu, eta, era berean, ezin izango zela materia atsedenean suposatu? Esaten didatenean mugimendua ez zaiola esentziala, beharrezkoa baizik, errazago ezezta daitezkeen hitzak aldatu nahi zaizkit, zentzu pixka bat gehiago izango balute. Beraz, edo materiari mugimendua bere baitatik datorkio eta berezkoa zaio, edo kausa arrotz batetik badatorkio, beharrezkoa da mugimenduaren kausak materiaren gainean eragitea: hasierako oztopora itzuli gara.

Ideia orokorrak eta abstraktuak gizakien akats handienen iturri dira; metafisikaren hitz-jarioak ez du egia bakar bat bera ere aurkitu, filosofia absurdoez bete du eta, hitz potoloak alde batera utzita, lotsa ematen du. Ene laguna, natura osoan zabaldutako indar itsuaz hitz egiten zaizunean, esadazu zure espirituak jasotzen ote duen egiazko ideiaren bat. *Indar unibertsal* edo *beharrezko mugimendu* bezalako hitz zehaztugabe horiekin zerbait esaten dela uste ohi da, baina ez da deus ere esaten. Mugimenduaren ideia toki batetik besterako garraioaren ideia besterik ez da: ez dago mugimendurik nolabaiteko norabiderik gabe; izaki indibidualak ez bailuke jakingo norabide guztietan

batera mugitzen. Zer noranzkotan mugitzen da materia nahitaez? Ba al du materiaren gorputz osoak mugimendu uniformerik? Ala berezko mugimendurik al du atomo bakoitzak? Lehenengo ideiaren arabera, unibertso osoak masa solido eta banaezina osatu beharko luke; bigarrenaren arabera, fluido zabaldua eta inkoherentea baino ez zen izango, eta bi atomo elkartzea ezinezkoa izango zen. Zer norabidetan egingo zen materiaren mugimendu komun hori? Lerro zuzenean izango da, gorantz, beherantz, eskuinera edo ezkerretara? Materia molekula bakoitzak bere norabide partikularra izango balu, zein izango lirateke norabide horien guztien eta desberdintasun horien guztien kausak? Materia atomo edo molekula bakoitzak bere ardatzaren inguruan soilik bira egingo balu, inoiz ez litzateke ezer aterako bere tokitik, eta ez legoke mugimendu komunikaturik; gainera, mugimendu zirkular hori norabideren batean edo bestean zehaztu beharko litzateke. Materiari mugimendua abstrakzioz ematea da esanahirik ez duten gauzak esatea; eta mugimendua determinatutzat jotzea, determinatzen duen kausa suposatzea da, zeren eta zenbat eta gehiago izan indar partikularrak, orduan eta kausa gehiago azaldu beharko baititut, zuzentzen dituen eragile komuna inoiz aurkitu gabe. Elementuen zorizko ekarpenean inolako ordenarik inola ere imajinatu ezinik, are ezinezkoagoa zait borroka imajinatzea, eta unibertsoaren kaosa harmonia baino imajinaezinago zait. Munduaren mekanismoa giza espirituarentzat ulertezina izan daitekeela ulertzen dut; baina gizaki bat azalpenak ematen hasten denean, gizakiek ulertzeko moduko gauzak esan beharko ditu.

Materia mugituak borondatea erakusten didan neurrian, hainbat legeren arabera mugitutako materiak adimen motaren bat erakusten dit: nire bigarren fede-artikulua da. Jardutea, konparatzea eta aukeratzea izaki aktibo eta pentsatzaile baten jarduerak dira: beraz, izaki hau existitzen da. Eta esango didazu: «Non ikusten duzu existitzen dela?». Nik erantzungo dizut bira egiten duten zeruetan ez ezik, baita argitzen gaituen izarrean ere existitzen dela, eta ez bakarrik nigan, bazkatzen duen ardian, hegan egiten duen txorian, baita haizeak daraman hostoan ere.

Munduaren ordena epaitzen dut, nahiz eta helburua ez ezagutu, ordena hori epaitzeko nahikoa dut atalak haien artean konparatzea, haien ekarpena eta harremanak aztertzea eta haien harmonia nabaritzea. Ez dakit zer dela eta existitzen den unibertsoa; baina etengabe ikusten dut nola antolatu den: etengabe hautematen dut

unibertsoa osatzen duten izakiek elkarri ematen diotela laguntza barneko trukeen bidez. Erloju ireki bat lehenengo aldiz ikusten duen gizakiaren antzekoa naiz: ekintza miresten du, nahiz makinaren erabileraren berri ez duen eta esfera inoiz ikusi ez duen. Ez dakit, esango du, osotasun hori zertarako izango den ona, baina pieza bakoitza besteentzat egina dagoela ikusten dut, haren lanaren zehaztasunetan miresten dut eskulangilea, eta ziur naiz engranaje horiek guztiek hautemanezina zaidan helburu komun baterako funtzionatzen dutela batera.

Hasteko konpara ditzagun helburu partikularrak, baliabideak eta mota guztietako datu ordenatuak; ondoren, barne-sentimenduari errepara diezaiogun. Zer begi oharkaberi ez die unibertsoaren ordena nabarmenak adimen goreneko bat iragartzen? Eta zenbat sofisma pilatu behar dira izakien arteko harmonia eta pieza bakoitzak besteak kontserbatzeko egiten duen ekarpen miresgarria ez onartzeko? Hitz egin diezadatela nahi adina konbinazioz eta aukeraz; ni isiltzeak ere zer balio du, baldin eta ezin banaute konbentzitu? Eta nola kenduko didate beti nire gogoz kontra arrazoia kentzen dien ustekabeko sentimendua? Gorputz antolatuak forma sendoak hartu baino lehen mila modutara konbinatu badira zoriz, lehenengo ahorik gabeko urdailak, oinak bururik gabe, eskuak besorik gabe eta ezin izan zirelako kontserbatu galdu diren klase guztietako organo osatugabeak eratu badira, zergatik ez dira gure begien aurrean agertzen halako saio itxuragabeak? Zergatik betetzen ditu naturak hasieran ezarrita ez zituen legeak? Zerbait gertatzea posible denean eta gertaeraren zailtasuna aukeren kopuruarekin orekatuta dagoenean, ez dut uste inor harritu behar denik, konforme nago. Hori bai, Eneida guztiz moldatua zoriz ateratako inprimategi-karaktereen emaitza dela esatera badatoz, ez dut pausorik emango gezurra dela erakusteko. Ahaztu egin zaizu, esango didate, botaldi kopurua. Baina, horrelako zenbat botaldi pentsatu behar dut behar direla konbinazioak egiantzik izateko? Nik, bakarra ikusten duen honek, apustu egingo nuke infinitua baten kontra botaldien emaitza ez duela zoriak baldintzatu. Horri gehitu iezaiozu elementu konbinatuen natura berbera izango dutela konbinazioek eta aukerek, organizazioa eta bizitza ez direla atomoen jolas baten emaitza, eta nahasturak arragoan konbinatzen dituen kimikari batek ezin izango dituela ez sentimenduz ez pentsamenduz hornitu.

Nieuwentit harriduraz eta, batzuetan, eskandaluz irakurri dut. Nolatan egin nahi izan du gizon horrek sortzailearen jakinduria gainditzen duen naturaren mirarien liburua? Liburu hori mundua bezain lodia izango litzateke eta, halere, ezin izango lioke gaiari heldu; eta zehaztasunetan sartu nahi izango balu, miraririk handienak —hau da, osotasunaren akordio eta harmoniak— alde egingo lioke eskuetatik. Gorputz bizidunen eta antolatuen sorrera hutsa giza espirituaren amildegia da; espezieen artean naturak jarri duen muga gaindiezina da nahasketarik ez egoteko, eta azken ebidentzia horrek erakusten ditu naturaren asmoak. Naturak, ordena ezartzeaz gainera, benetako neurriak hartu ditu ezer ere ez nahasteko.

Ez dago unibertsoan izaki bat bera ere beste izaki guztien zentro komuntzat hartua ezin dena, eta, gainerakoak haren inguruan antolatzen diren neurrian, guztiak dira elkarrekiko helburu eta baliabide. Gure espiritua ezin konta ahaleko harreman horietan nahasi eta galdu egiten da; naturan, aldiz, ez da nahasten eta galtzen horietako bat bera ere. Zenbat susmo absurdo sortu behar diren harmonia hori zoriz mugitzen den materiaren mekanismo itsuak sortzen duela deduzitzeko! Osotasun handi horren atal guztien arteko harremanetan azaltzen den batasun-asmoa ukatzen dutenek hobe lukete nahaste-borraste horiek estaltzea abstrakzioez, koordinazioez, printzipio orokorrez eta termino nabarmenez; egiten dutena egiten dutela, etengabe ordenatutako izakien sistema eta ordenatzen dituen adimena imajinatzea ezinezkoa egiten zait. Ezin dut sinetsi materia pasibo eta hilak izaki bizidunak eta sentiberak sortu ahal izan duenik, patu itsu batek izaki adimentsuak sortu ahal izan dituenik, pentsatzen ez duenak pentsatzen duten izakiak sortu ahal izan dituenik.

Nik, beraz, sinesten dut borondate ahaltsu eta jakintsu batek gobernatzen duela mundua; ikusi egiten dut, are gehiago, sentitu egiten dut, eta hori da inporta zaidana. Baina mundu hau bera betierekoa ala sortua da? Ba al dago gauzen printzipio bakarra? Bi edo gehiago dira? Zein da horien natura? Ez dakit ezer, eta ez zait inporta! Ezagutzak interesgarri zaizkidanean, orduan egingo dut haietaz jabetzeko ahalegina; beraz, hemendik aurrera, uko egingo diet nire burukoitasuna kezka dezaketen alferrikako kontuei, nire jokabiderako desegokiak direnei eta nire arrazoia baino goragokoak direnei.

Oroit zaitez beti nik ez dudala nire sentimendua irakasten, baizik eta azaltzen. Materia betierekoa ala sortua izan, printzipio pasibo bat izan ala ez, beti da egia osotasuna bakarra dela eta adimen bakarra iragartzen duela; ez baitut ikusten sisteman bertan ordenatu gabe dagoen eta helburu bera ez duen ezer, hau da, osotasunak ezarritako ordenari eusten ez diona. Nahi eta ahal duen izaki horri —izaki aktiboa berez—, dena delako izaki horri, unibertsoa mugitzen duenari eta gauza guztiak ordenatzen dituenari Jainko deritzot. Izen horretan adimenaren, ahalmenaren eta borondatearen ideiak bildu ditut, baita ontasunarena ere, aurreko horien nahitaezko ondorioa delako; baina hori egiteagatik ez dut hobeto ezagutuko zer izaki izendatu dudan; berdin-berdin ezkutatzen zaie nire zentzumenei eta nire adimenari; zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta gehiago nahasten bainaiz; ongi dakit existitzen dela eta berez existitzen dela, badakit nire existentzia, ezagutzen ditudan gauza guztiak bezala, harenaren menpe dagoela. Jainkoa, batez ere, bere ekintzetan sumatzen dut; nigan sentitzen dut, nire inguruan ikusten dut; baina bere horretan begiratu nahi badut, non dagoen bilatu nahi badut, haren izaera zein den jakin nahi badut, alde egiten dit, eta nire espiritu nahasiak ez du besterik hautematen.

Nire ezintasunez jabetuta, ez nuke inoiz arrazoituko Jainkoaren izateaz, baldin eta nirekin dituen harremanen sentimenduak horretara bultzatuko ez banindute. Arrazoibide horiek beti ausartegiak dira, eta gizaki zentzudunak ez lituzke egin beharko ikaratu gabe eta haietan sakontzeko gai dela konbentzituta egon gabe: Jainkotasunari egin dakiokeen irainik handiena ez da harengan ez pentsatzea, hartaz gaizki pentsatzea baizik.

Nire existentzia pentsatzeko bi ezaugarri horiek aurkitu ondoren, nigana itzultzen naiz, eta Probidentziak arautzen duen eta nik azter ditzakedan gauzen ordenan bilatzen dut zer toki hartzen dudan nik. Ezbairik gabe, nire espeziea dela eta, lehenengo tokian nago; nire borondatea eta hura gauzatzeko nigan ditudan lanabesak direla eta, inguratzen nauten gorputz guztien artean jarduteko indartsuena naiz, bai haien ekintzarekin bat egiteko, baita hura baztertzeko ere, nahi dudan bezalaxe, hortaz haietako bat bera ere ez da nire kontra aritzeko gauza izango bultzada fisiko hutsaren poderioz, eta, nire adimenari esker, ni naiz osotasuna ikuskatzeko aukera duen bakarra. Gizakiaz landa, lurreko zer izakik daki besteak behatzen, neurtzen,

kalkulatzen, haien mugimenduak aurreikusten, haien eraginak elkartzen, eta, esate baterako, existentzia komunaren sentimendua banakako existentziarenarekin elkartzen? Hain barregarria al da guztia nik egina dela pentsatzea, horren berri ematen dakien bakarra baldin banaiz?

Beraz, egia da gizakia bizitoki duen lurraren erregea dela; ez ditu animalia guztiak hezten eta industriarako elementuak atontzen bakarrik, zeren lurrean hark bakarrik baitaki antolatzen eta kontenplazioaren bidez helezinak zaizkion astroez ere jabetzen. Erakuts diezadatela lur gaineko beste animalia bat sua erabiltzen dakiena eta eguzkia miresten dakiena. Hara! Nik izakiak eta haien harremanak ikuska eta ezagutu al ditzaket? Ordena, edertasuna, bertutea zer diren senti dezaket; unibertsoa begiratu eta gobernatzen duen eskuraino igo naiteke; ongia maita dezaket, baita egin ere; eta animaliekin konparatuko al naiz? Arima zitala, zure filosofia tristeak egiten zaitu haien antzeko: alfer-alferrik saiatzen zara, zure buru-argitasunak zure printzipioen kontra jotzen baitu; zure bihotz onuragarriak zure doktrina ukatzen du, eta zure ahalmenen gehiegikeriak berak frogatzen du ahalmen horien bikaintasuna zure kaltean.

Nire aldetik, inolako sistemari eutsi behar ez diodanez gero, izaki sinple eta egiazkoa naizen hori, inongo partiduren haserrea jaso gabea, eta sekta baten buru izateko ohorea bilatzen ez duena, Jainkoak jarritako tokiarekin konforme, haren ondoren ez dut nire espeziea baino hoberik inon ikusten; eta izakien ordenan beste toki bat aukeratzea izango banu, aukera hoberik al dago gizakia izatea baino?

Ez dagokidan neurrian, gutxiago harrotzen nau pentsamendu horrek, zeren egoera hau ez bainuen nik aukeratu eta existitzen ez zen izaki batek ez baitzuen sortu. Ikusi ahal izango dut nik neure burua era horretara bereizia halako ohorezko tokia betetzen nire burua zoriondu gabe eta bertan jarri nauen eskua bedeinkatu gabe? Nitaz eginiko lehenengo gogoetan, nire espeziearen egilearekiko aitortza- eta bedeinkapen-sentimendu bat jaio zen nire bihotzean, eta sentimendu hartatik nire lehenbiziko omenaldia Jainko onuragarriari. Ahalmen gorena gurtzen dut eta bere onurek samurtzen naute. Ez dut inoren irakaspenik behar izango gurtza horren inguruan, naturak berak ematen dit eta. Babesten gaituena ohoratzea eta guretzat ongia nahi duena maitatzea ez al da norberarenganako maitasunaren ondorio naturala?

Baina, nire espeziean nire toki indibiduala ezagutzeko hainbat maila eta horiek osatzen dituzten gizakiak aztertzen ditudanean, non nago? A zer nolako ikuskizuna! Non da ikusi nuen ordena? Naturaren ikuspegiak harmonia eta proportzioak eskaintzen dizkit, baina giza generoaren ikuspegiak, aldiz, nahasketa eta anabasa besterik ez! Elementuen artean orekak agintzen du, eta gizakien artean, kaosak! Piztiak zoriontsuak dira, haien erregea soilik miserablea! Jakituria, non daude zure legeak? Probidentzia, horrela gobernatzen al duzu mundua? Izaki onuragarria, non da zure ahalmena? Gaizkia ikusten dut lurrean.

Lagun ona, sinetsiko al zenuke gogoeta triste horietatik eta itxurazko kontraesan horietatik lehenagoko ikerketetan aurkitu ez nituen arimaren ideia bikainak nire espirituan sortuz joan zirela? Gizakiaren izateaz pentsatzean, izate horretan bi printzipio aurkitu ditudala uste dut: batak, egia betierekoak ikastera, justiziaren eta ongi morala maitatzera, mundu intelektualaren esparruetara eta jakituna zoriontsu egiten duen kontenplaziora altxatzen du; besteak, aldiz, bere baitara, zentzumenen inperioaren menpera, bere ministroak diren grinetara eta lehenengo sentimenduak iradokitzen dizkion ideia guztiak errefusatzera jaitsarazten du. Ni neu indarrez eramana sentitu nintzen, bi mugimendu kontrajarrien arteko borrokan sartua, eta neure buruari esaten nion: ez, gizakia ez da bat; nahi dut eta ez dut nahi, aldi berean esklabo eta libre sentitzen naiz; ongia ikusten dut eta maite dut, baina gaizkia egiten dut; aktiboa naiz arrazoia entzuten dudanean, pasiboa nire grinek naramatenean; eta erortzen naizenean izaten dudan tormenturik handiena jasan nezakeela sentitzea da.

Gazte, konfiantzaz entzun ezazu, beti fede onez arituko naiz. Kontzientzia aurreiritzien fruitua bada, nik ez dut arrazoirik izango, dudarik gabe, eta ez dago frogatutako inolako moralik; baina gizakiaren joera naturala guztiaren aurrean bere burua nahiago izatea bada, eta justiziaren lehenengo sentimendua giza bihotzean berezkoa bada, gizakia izaki sinplea bilakatzen duen horrek kontraesanak sortzen dizkio eta, beraz, nik haren baitan substantzia bat besterik ez dut bereiziko.

Konturatuko zarenez, substantzia niretzat hau da: oro har nolakotasun primitiboren baten jabe izatea, gainerako aldaera partikularrak edo bigarren mailakoak albora utzita. Hortaz, ezagutzen ditugun nolakotasun primitibo horiek guztiak izaki berean bil

badaitezke, substantzia bakarra onartu beharko da; baina haien artean baztertzaileak diren nolakotasunak baldin badira, antzeko bazterketak egin ditzaketen hainbat substantziak egon beharko dute. Horretaz pentsatuko duzu; nik nahikoa dut, Lockek esanak esan, materia hedatu eta banagarria dela jakitea, materia horrek ezin duela pentsatu ziurtatu ahal izateko; eta filosofo bat hurbiltzen bazait arbolek sentitzen dutela eta harkaitzek pentsatzen dutela esatera, zenbat eta gehiago nahasten saiatu ni haren argudio burutsuekin, orduan eta gehiago ikusi ahal izango dut harengan fede txarreko sofista bat, nahiago duena gizakiaren arima onartu baino harrien sentimendua aitortu.

Har dezagun bere belarriei inoiz eragin ez dietela-eta soinuen existentzia ukatzen duen gorra. Haren begien aurrean harizko instrumentu bat jartzen dut, gordetako beste instrumentu baten laguntzaz unisonoa jotzen dut. Gorrak soka bibratzen ikusten du. Esaten diot: «Hori da soinua eragiten duena». «Inola ere ez» —erantzuten dit gorrak, eta gaineratzen:— «Zertarako erabili inola ere ezagutzen ez ditudan zure soinuak hori azaltzeko, ez bazait buruan sartzen hari horrek zer dela eta bibratzen duen. Hori gertaera ilun bat are ilunago den kausa baten bitartez azaldu nahi izatea da. Zure soinuak sentiarazten ez dizkidazun artean, existitzen ez direla esango dut».

Zenbat eta gehiagotan gogoeta egin giza espirituaren naturaz eta pentsamenduaz, orduan eta gehiagotan aurkitzen dut gor horren arrazoibideak materialistena ematen duela. Eta, egia esanda, gorrak dira, bai, baita barne-ahotsak ozenki garrasi egiten badie ere. Makina batek ez du pentsatzen, ez dago gogoeta sortzen duen inolako mugimendurik, ezta irudirik ere; zure baitako zerbaitek estutzen duten loturak apurtzea bilatzen du; espazioa ez da zure neurria, unibertso osoa ez da zuretzat aski, zure sentimenduak, zure desirak, zure egonezinak, zure harrotasunak berak ere bestelako jatorria dute, kateatuta sentiarazten zaituen gorputz estu horretatik haragokoa.

Beste izaki materialak ez dira berez aktibo, eta ni banaiz. Hori ezbaian jartzen didaten arren, nik sentitu egiten dut, eta hitz egiten didan sentimendu horrek bere aurka ari den arrazoia baino indar handiagoa dauka. Gorputz bat daukat, besteen gorputzak nirean jarduten dira eta nireak haienean; elkarrenganako eragin hori ez dago zalantzan

jartzerik; baina nire borondatea ez dago nire zentzumenen menpe; onartu edo baztertu egiten dut, erortzen naiz edo garaitzen dut, eta zehatz-mehatz sentitzen dut nire artean noiz egin dudan egin nahi izan dudana edo noiz utzi dudan nire burua grinen esku. Beti izaten dut nahi izatearen boterea; ez, ordea, hori betetzeko indarra. Tentaldiei amore ematen diedanean, kanpoko objektuen eraginen arabera jarduten dut. Ahulezia hori neure buruari aurpegiratzen diodanean, nire borondatea baino ez dut entzuten; nire bizioen gatibu naiz, eta nire kontzientziako harrek libre egiten naute; perbertitzen ez naizen bitartean, eta arimaren ahotsari gorputzaren indarraren kontra altxatzeko eragozpenik jartzen ez diodan bitartean, ez da nigan askatasunaren sentimendua lausotzen.

Borondatea nirea sentitzeagatik baino ez dut ezagutzen, eta adimena ere ez dut hobeto ezagutzen. Nire borondatea zehazten duen kausa zein den galdetzen didatenean, nire epaia zehazten duen kausa zein den galdezka erantzuten dut: argi dago bi kausa horiek bat baino ez direla, eta ulertzen bada gizakia bere epaietan aktiboa dela, eta haren adimena konparatzeko eta epaitzeko boterea dela, orduan haren askatasuna antzeko ahalmen bat edo horretatik eratorria dela ondorioztatuko da; ongia aukeratu du, egia epaitu duen bezala; baina oker epaitzen badu, gaizki aukeratzen du. Zein da haren borondatea mugatzen duen kausa? Haren epaia da. Eta zein da haren epaia mugatzen duen kausa? Haren ahalmen adimentsua da epaitzeko boterea; mugatzen duen kausa bere baitan dago. Hortik aurrera nik ez dut besterik ulertzen.

Dudarik gabe, ni ez naiz nire ongia nahi ez izateko libre, eta ez naiz nire gaizkia nahi izateko libre; baina horixe bera da askatasuna, hau da, nik nahi dut komeni zaidan hori, edo horrela iruditzen zaidan hori, eta nigandik kanpoko ezerk ez nau mugatzen. Hortaz, nire buruaren jabe ez naizela ulertuko al da ni ez beste inor izateko aukerarik ez dudalako?

Akzio orok izaki libre baten borondatean du abiaburu; ez nuke hori gainditzen jakingo. Esanahirik ez duena ez da *askatasun* hitza, *behar* hitza baizik. Printzipio eraginkor baten ondorio ez den ekintza bat edo efektu bat suposatzea kausarik gabeko ondorioak suposatzea da, sorgin-gurpil batean erortzea da. Edo ez dago lehenengo

bultzadarik, edo lehenengo bultzada orok ez du lehenagoko kausarik eta, beraz, ez dago egiazko borondaterik askatasunik gabe. Gizakia librea da bere ekintzetan eta, neurri horretan, substantzia materiagaberen batek animatua da, hori da nire hirugarren fede-artikulua. Lehenengo hiruotatik erraz ondorioztatuko dituzu gainerakoak, nik kontua eramaten jarraitzen ez badut ere.

Gizakia aktibo eta libre baldin bada, bere kabuz ari ohi da; askatasunez egiten duen guztia ez da Probidentziaren sistema ordenatuan sartzen, eta ezin zaio hari leporatu. Hark ez du inola ere nahi gizakiak, eman zaion askatasuna gaizki erabiliaz, egiten duen kaltea; baina Probidentziak ez dio egitea eragozten, edo halako izaki ahularen aldetik datorren kalte hori balio gutxikotzat jotzen duelako edo, gizakiaren askatasunari trabak jarriz gero, izaki haren natura hondatuz kalte handiagoa egingo liokeelako. Hark aske egin du ongia egitea aukeratu dezan, eta ez gaizkia. Probidentziak aukera hori egiteko atakan jarri du, hark emandako ahalmenak ongi erabiltzen baditu; baina indar mugatuak eman dizkio, haren askatasunaren gehiegikeriak ordena orokorra nahas ez dezan. Gizakiak egiten duen gaizkia bere buruaren gainean erortzen da, munduaren sisteman ezer aldatu gabe, giza espeziearen iraupena eragotzi gabe. Jainkoak gizakiari gaizkia egitea ez eragozteaz kexatzea natura ezin hobeki egin izanaz kexatzea da, haren ekintzek duintzen duten moralitatea eransteaz, baita bertutera zuzen eramango duen horretaz ere kexatzea. Gozamenik handiena nor bere buruarekin pozik egotea da; poz hori merezi ahal izateko gaude lurrean askatasunez hornituta, grinek tentatzen gaituzte eta kontzientziak gelditzen gaitu. Zer gehiago egin zezakeen gure alde ahalmen jainkotiarrak? Gure naturan kontraesana jarri eta gaizkia egin ezin duenari ongia egitearen saria emango al lioke? Tira! Gizakia gaiztoa ez izateko, senera mugatu eta ergel egingo al zukeen? Ez, ene Jainkoa, ez dizut inoiz aurpegiratuko nire irudia zurearen antzera egin izana, horrela zu bezala, ni ere libre, on eta zoriontsua izan naiteke.

Gure ahalmenen neurrigabekeria da zorigabe eta gaizto egiten gaituena. Gure tristurak, gure kezkak, gure penak guregandik datozkigu. Gaitz morala gure ekintza da, eta gaitz fisikoa ez litzateke ezer izango horixe bera agerian uzten duen gure biziorik ezean. Naturak ez al dizkigu gure beharrak sentiarazten gu irautearren? Makina hondatzen ari dela eta zaintzeko abisua, ez al da gorputzaren mina? Heriotza…

Gaiztoek ez al dute beren bizitza eta gurea pozoitzen? Nork bizi nahi izango luke betiko haien artean? Heriotza zeure buruari egiten dizkiozun kalteen konponbidea da; naturaren nahia izan da betiko ez ditzazula jasan. Sinpletasun primitiboan bizi den gizakiak oso gaitz gutxi izango ditu! Ia ondoezik eta grinarik gabe, ez du heriotza aurreikusten, ezta sentitzen ere; baina sentitzen duenean, haren minak desiragarri bilakatzen du; hortik aurrera heriotza ez da harentzat kalte. Garena izatearekin konforme egongo bagina, ez genuke gure zorteaz kexatzeko arrazoirik izango; baina irudimenezko ongizatea bilatu nahian, egiazko mila gaitz erakartzen ditugu. Sufrimendu pitin bat jasaten ez dakienak asko sufritzea espero dezake. Bizimodu desegokia eramanez gorputzari kalte egin dion gizakia erremedioekin sendatu nahi da: sentitzen duen gaitzari gaitzak berak sortzen duen beldurra gehitzen zaio; heriotza aurreikustea izugarria bilakatzen zaio eta heriotza bera azkartzen du; zenbat eta urrunago bidali nahi izan, are gertuago sentitzen baitu; eta beldurtuta ematen du bizitza osoa naturari leporatzen bere buruari eginiko kalteak.

Gizona, ez ezazu bila gaitzaren egilea; egile hori zu zeu zara. Zuk egiten edo sufritzen duzun gaitza zugan baino ez da existitzen, eta bata nahiz bestea zuregandik datoz. Gaitz orokorra desordenan baino ezin da egon, eta nik munduaren sisteman gezurtatu ezin den ordena ikusten dut. Gaitz partikularra sufritzen duen izakiaren sentimenduan dago, ez dio naturak eman, gizakiak berak eman dio bere buruari. Minak ez du helduleku egokirik pixka bat pentsatu eta gero, oroimenik eta aurreikuspenik ez duenarekin. Zoritxarreko aurrerapena utz ezazue, akats eta bizioak utz itzazue, gizakiaren ekintzak utz itzazue, eta guztia ongi egongo da.

Guztia ongi dagoenean, ez dago zuzengabe den ezer. Justizia eta ontasuna banaezinak dira; baina ontasuna da mugarik gabeko botereak eta izakiaren berezko ezaugarri den bere buruarenganako maitasunak dakarten ondorioa. Guztia ahal duen horrek bere existentzia hedatzen du beste izakien existentziaren bitartez. Boterearen ekintza etengabea da sortzea eta kontserbatzea; ez du jarduten ez denarekin; Jainkoa ez da hildakoen Jainkoa, eta ezin izango litzateke suntsitzaile eta gaizto izan, bere izaerari kalterik egin gabe. Guztia ahal duenak ongia baino ezin du nahi izan. Hortaz, guztiz ona den Izakiak, guztiz ahaltsua denez, guztiz zuzena izan behar du, bestela bere burua

ezeztatuko luke; beraz, ordena sortzen duen ordenarekiko maitasunari ontasun esaten zaio, eta iraunarazten dion ordenarekiko maitasunari, justizia.

Esaten da Jainkoak ez diela ezer zor bere izakiei. Izateko aukera eman dienean hitzemandako guztia eman diela sinesten dut nik. Eta onura bat hitzematea da horren ideia ematea eta horren beharra sentiaraztea. Zenbat eta gehiago nigana bildu, aholku gehiago eskatzen baitizkiot neure buruari, eta ariman idatzita ditudan hitz hauek irakurtzen ditut: «Izan hadi zuzena, eta zoriontsua izango haiz». Baina, egungo egoera kontuan hartzen badugu, ez da horrela: gaiztoak aurrera egiten du, eta zuzena zapalduta gelditzen da. Ikus ezazu zer-nolako sumindura pizten den gugan halako itxaropena zapuzten denean! Kontzientzia altxatzen da eta haren sortzailearen aurka marmarka hasten da; eta orroka egiten dio garrasi: «Engainatu nauzu!».

Ausartegi hori, engainatu zaitudala! Eta nork esan dizu hori? Suntsitua al dago zure arima? Existitzeari utzi al diozu? Bruto, seme! Ez ezazu orbandu zure bizitza noblea hura akabatuz; ez itzazu utz zure gorputzarekin batera zeure itxaropena eta zeure aintza Filiporen zelaietan. Zergatik esaten duzu: bertutea ez da ezer, zureak merezi duen sariaz gozatzera doanean? Hilko zarela pentsatzen duzu, eta ez, biziko zara, eta, orduan, nik hitzeman dizudan guztia beteko dut.

Esan liteke, pazientzia gutxiko gizakien marmarrei erreparatuz gero, Jainkoak merezi baino lehenago ematen diela saria, eta haien bertutea aldez aurretik ordaintzera behartuta dagoela. Izan gaitezen onak, lehendabizi, eta zoriontsuak izango gara gero. Ez dezagun eska saria garaipena lortu baino lehen, ezta soldata lana egin baino lehen ere. Plutarkoren esanetan, joko sakratuen garaileak ez dira lehia-tokian koroatuko garaitu ez duten bitartean.

Arima materiagabea baldin bada, gorputza baino luzeago bizi daiteke; arima luzeago bizi bada, Probidentzia justifikatuta dago. Arima materiagabea dela frogatzeko mundu honetan gaiztoaren garaipena eta zuzenaren zapalketa besterik izango ez banu ere, horrek bakarrik zalantza guztiak argituko lizkidake. Harmonia unibertsalean halako disonantzia egoteak soluzioa bilatzera bultzatuko ninduke. Eta neure buruari esango nioke: «Bizitzarekin ez zaigu guztia bukatzen, heriotzarekin ordenara itzultzen da dena». Egia esanda, sentigarria duen guztia suntsitzen denean, gizakia non dagoen

galdetu beharko nioke neure buruari. Baina kontu horrek ez du zailtasunik niretzat, bi substantzia bereizi baititut. Oso sinplea da: nire gorputzaren bizitzak irauten duen bitartean, nire zentzumenen bidez baino ez dut nabaritzen, eta horien mende ez dagoenak alde egiten dit. Gorputzaren eta arimaren batasuna hausten denean, bat desegin daitekeela eta besteak iraun dezakeela pentsatzen dut. Zer dela eta suntsituko da bat bestea suntsitzen denean? Guztiz kontrakoa da, halako natura desberdinak izaki, beharturik zeuden elkartuta; batasun hori bukatzen denean biak itzultzen dira egoera naturalera: substantzia bizi eta aktiboak substantzia pasibo eta hila mugitzeko erabiltzen zuen indar guztia berreskuratuko du. Ai! Nire bizioek gehiegi sentiarazten didate gizakia bizitzan zehar hala moduz bizi ohi dela, eta arimaren bizitza ez dela hasiko gorputza hil arte.

Baina nolakoa da bizitza hori? Bere izateak bihurtzen al du arima hilezkor? Nire adimen mugatuak ez du mugarik gabeko ezer sumatzen: infinitutzat hartzen dudan guztiak alde egiten dit. Zer uka edo baiezta dezaket? Zer-nolako arrazoibidea egin dezaket asmatu ezin dudanaz? Nik uste dut arima gorputza baino luzeago bizi dela, behintzat ordenari eusteko adina; nork jakin beti irauteko nahikoa den? Dena den, gorputza nola erabili eta atalen banaketaz nola suntsitzen den pentsatzen dut; baina ezin dut pentsatu izaki pentsalaria hala suntsitzen denik. Eta nolatan hil daitekeen imajinatu ezin dudanez, ez dela hiltzen uste dut. Ideia hori hain kontsolagarria eta guztiz arrazoizkoa baldin bada, zer dela eta izan beharko nuke onartzeko beldurra?

Nire arima sentitzen dut, sentimenduek eta pentsamenduek ezagutarazten didate, badakit badela, bere esentzia zein den jakin gabe, ez ditudan ideien inguruan ez dut-eta arrazoitzerik. Ongi dakidana da nire identitatea oroitzaz baino ez dela luzatuko, eta, berbera izateko, izan naizela gogoratu behar dudala. Baina, hil eta gero, izan naizenaz ez naiz oroituko, eta ez dut gogoratuko sentitu dudana eta, beraz, ezta egin dudana ere; eta egunen batean oroitzapen hori zintzoen zoriona eta gaiztoen tormentua izango dela zalantza izpirik ere ez dut. Hemen, mila grina sutsuk xurgatzen dute barne-sentimendua, eta kontzientziako harrek isilarazten dute. Bertutez aritzeak ekarritako laidoek eta zorigaitzek eragozten dute xarmangarri den guztia sentitzea. Baina gorputzak eta zentzumenek sortzen dizkiguten ilusioen mende egon gabe, Izaki gorena eta berak sortutako egia betierekoak miretsiz gozatzen hasten garenean, eta

ordenaren edertasunak gure arimaren ahalmen guztiak hunkitzen dituenean, buru-belarri hasiko gara egin duguna egin behar genuenarekin konparatzen; orduan berreskuratuko ditu kontzientziaren ahotsak indarra eta agintea; orduan, norberaren plazera egitea bilatzen duen lizunkeria hutsak eta degradatu izanaren pena mikatzak bereiziko dute sentimendu amaiezinen bidez nork bere buruari opa dion zortea. Ez galdetu niri, lagun ona, poz eta pena beste iturririk izango ote den orduan; ez dakit; imajinatzen ditudanak aski dira bizitza honetan kontsolatzeko eta beste bizitza bat espero izateko. Ez dut esaten zintzoek saria izango dutenik; zer-nolako ongia espero dezake izaki bikainak bere horretan existitzetik harago? Baina zoriontsuak izango direla esaten dut; haien sortzaileak, justizia ororen egileak, sentiberak egin dituenez, ez baititu sufritzeko sortu, eta, lurrean izan duten askatasuna muturrera eraman ez duten neurrian, haien patua desbideratzen ez dute errurik izan. Hortaz, bizitza honetan sufritu badute, saria jasoko dute beste batean. Sentimendu hori ez dut oinarritzen gizakiaren merezimenduan, esentzia jainkotiarretik banaezina iruditzen zaidan ontasunean baizik. Ordenaren legeak beteko direla eta Jainkoa berez iraunkorra dela suposatzen dut.

Ez galdetu niri gaiztoen tormentuak betiko izango diren; ez baitakit, eta funtsik gabeko arazoak argitzeko jakin-min hutsalik ez dut. Zer axola zait niri gaiztoekin gertatuko dena? Haien zorteak ez dit interesik sortzen. Hala ere, pena ematen dit amaierarik gabeko tormentuetara kondenatuko direla sinesteak. Justizia gorenak mendekua hartzen badu, bizitza honetan hartzen du. Ai nazioak, zuek eta zuen okerrak! Horien ministroak zarete. Justizia gorenak berari leporatzen zaizkion krimenak zigortzeko erabiltzen ditu zuek egiten dituzuen okerrak. Grina mendekariek zuen itxurazko oparotasuna zigortuko dute bekaitzez, diruzalekeriaz eta handinahiz jositako zuen bihotz asegabeetan. Zertarako bilatu behar da infernua beste bizitzan, honezkero gaiztoen bihotzondoan bizi bada?

Gure behar galkorrak eta gure desira zentzugabeak bukatzen direnean, gure grinak eta krimenak ere bukatuko dira. Zer perbertsio motak harrapatuko ditu halako espiritu garbiak? Ezeren beharrik ez badute, zergatik izango dira gaiztoak? Zentzumen baldarretatik aske haien zorion osoa izakiak mirestea baldin bada, ongia baino ez dute nahi izango; betiko izan al daiteke miserable gaizto izateari uko egin diona? Hori da ni

sinestera iritsi naizena, erabakitzeko grina handirik gabe. Izaki bihozbera eta ona! Zure dekretuak maitatzen ditut, direnak direla; gaiztoak zigortzen badituzu, zure justiziaren aurrean baztertuko dut nire arrazoi ahula. Baina, nik alabatuko zaitut zorigaizto horien kontzientziako harrak denborarekin itzaliko balira, haien gaitzek bukaera izango balute, eta egunen batean bake berbera egongo balitz denon zain. Baina, gaiztoa, ez al da nire anaia? Zenbat alditan tentatu nau horren antza hartzeak? Miseriatik askatzean, horrekin batera datorren gaiztakeria ere galduko du; zoriontsu izan dadila, ni bezala: haren zorionak, nire jelosia piztetik urrun, neurea handituko du.

Hortaz, Jainkoa bere ekintzetan miretsiz eta ezagutu nahi ditudan haren ezaugarriak aztertuz, ulertu dut eta handitu da izaki erraldoi horretaz nuen hasierako ideia osatugabe eta mugatua. Baina ideia hori nobleago eta zabalago izatera iritsi bada ere, gero eta urrutiago dago giza arrazoiaren proportziotik. Nire espiritua betiereko argira hurbiltzen saiatzen den neurrian, haren distirak itsutzen eta nahasten du, eta hura imajinatzen laguntzen didaten lurreko ideiak uztera behartuta nago. Jainkoa ez da gorputza duen eta sentigarria den izakia; mundua bera gobernatzen duen adimen gorena ere ez da mundua bera: alferrik altxatzen eta nekatzen dut nire espiritua haren esentzia asmatzeko. Esentzia horrek bizitza ematen duela eta gorputz bizidunak gobernatzen dituen substantzia bizi eta aktiboari ekintzarako gaitasuna ematen diola pentsatzen dudanean, Jainkoa espiritua dela eta nire arima espirituala dela entzuten dudanean, haserretu egiten naiz esentzia jainkotiarraren halako mespretxuaren kontra; nire arima eta Jainkoarena izaera berekoak balira bezala; Jainkoa izaki absolutu bakarra ez balitz bezala, benetan aktibo, pentsalari, sentitzen duen eta berez nahi duen bakarra, eta pentsamendua, sentimendua, jarduna, borondatea, askatasuna eta izaera eman dizkiguna ez balitz bezala! Hark nahi duelako gara libre, eta haren substantzia hori ulergaitza da gure arimentzat, gure arimak ulergaitzak diren neurrian gure gorputzentzat. Nik ez dakit hark materia, gorputzak, espirituak eta mundua sortu dituen. Kreazioaren ideiak nahasi egiten nau eta nire ekarpenetik harago dago: sinesten dut pentsa dezakedan neurrian; baina badakit existitzen den guztia eta unibertsoa osatu dituela, guztia hark egin eta ordenatu duela. Jainkoa betierekoa da, dudarik gabe; baina nire espirituak ba al du betikotasunaren ideia besarkatzerik? Zergatik konformatuko naiz ideiarik gabeko hitz hutsekin? Hura gauza guztiak izan

aurretik ere bazela, horiek bukatzen direnean ere badela, eta guztia egunen batean amaitu behar bada ere hura izango dela pentsatzen dut. Iluna eta ulertezina da nik buruan hartu ezin dudan izaki batek beste izakiei existentzia ematen diela pentsatzea; baina kontraesan nabarmena eta erabateko absurdoa da esatea izatea ezerez bihurtzen dela eta ezereza izate.

Jainkoa adimentsua da, baina nolako adimena du? Gizakia adimentsua da arrazoitzen duenean, baina adimen gorenak ez du arrazoitu beharrik; harentzat ez dago ez premisarik ez ondoriorik, ezta proposiziorik ere: guztiz intuitiboa da, berdin-berdin ikus dezake existitzen den guztia eta izan daitekeen guztia; egia guztiak harentzat ideia bakarra dira, eta toki guztiak puntu bakarra, eta garai guztiak une bakarra. Gizakiaren boterea baliabideen bidez aritzen da, botere jainkotiarra berez aritzen da. Jainkoak nahi duelako ahal du; haren borondateak bere boterea egiten du eta. Jainkoa ona da; ez dago ezer argiagorik; baina gizakiarengan ontasuna besteenganako maitasuna bada, Jainkoarengan ordenarekiko maitasuna da; zaintzen duen ordenari esker existitzen da, eta atal bakoitza osotasunarekin lotzen du. Jainkoa zuzena da; konbentzituta nago, haren ontasunaren ondorioa da; gizakien zuzengabekeria haien ekintza da, eta ez Jainkoarena; desordena morala Probidentziaren kontrako lekukoa da filosofoentzat; niretzat, aldiz, haren aldeko froga. Baina gizakiaren justizia bakoitzari berea ematea da eta Jainkoaren justizia, aldiz, bakoitzari eman dionaren arabera kontu eskatzea da.

Eta halako ezaugarriak jarraian aurkitzera iritsi banaiz, beharrezko ondorioen bidez eta nire arrazoiaren erabilera egokiaren bidez izan da; ulertu gabe baieztatzen ditut eta, egia esanda, hori ez da ezer ere baieztatzea. Alferrik diot: Jainkoa horrelakoa da, hala sentitzen dut eta frogatzen dut; ezin dut pentsatu nola izan daitekeen Jainkoa den bezalakoa.

Haren esentzia infinitua zenbat eta gehiagotan miresten saiatu, orduan eta gutxiago pentsa baitezaket; baina bada eta aski dut; zenbat eta gutxiago pentsatu ahal izan, orduan eta gehiago maitatzen baitut. Makurtzen naiz eta esaten diot: «Izakien Izakia, zu zarelako naiz ni, zugan etengabe gogoeta egiteak nire iturburura igoarazten nau. Nire arrazoiaren erabilerarik duinena zure aurrean desegitea da: nire espirituaren

estasia eta nire ahuleziaren xarma zure handitasunaren aurrean nire burua txundituta sentitzea da».

Hortaz, ezagutzea inporta zaizkidan egiak ondorioztatu eta gero, nire argi naturalen arabera kausak epaitzera naraman barne-sentimendutik eta objektu hautemangarriek eragindako inpresioetatik, falta zait nire portaerarako zer eredu atera behar dudan bilatzea eta nire xedea lurrean, bertan jarri nauenaren asmoari jarraituz, bete ahal izateko zer arautara makurraraziko dudan neure burua jakitea. Beti nire metodoari jarraituz, arau horiek ez ditut munta handiko filosofia baten printzipioetatik ondorioztatuko, zeren ezabaezinak diren letretan naturak idatzita aurkitzen baititut nire bihotzaren muinean. Egin nahi dudanari buruz neure buruari galdetu baino ez dut egin behar: ongi sentitzen dudan guztia ongi dago, gaizki sentitzen dudan guztia gaizki dagoen bezala: kasuista guztien arteko onena kontzientzia da; eta harekin bat ez gatozenean, orduan jotzen dugu arrazoibideen zolitasunetara. Zaintza guztien arteko lehena norberaren buruarena da: baina zenbat alditan esaten digun barne-ahotsak gaizki egiten dugula gure ongia besteen kontura lortzen dugunean! Naturaren bultzadari jarraitzen diogula uste dugu, eta aurre egiten diogu; gure zentzumenei esaten diena entzunez, gure bihotzei esaten diena gutxiesten dugu; izaki aktiboak obeditzen du, baina izaki pasiboak agintzen du. Kontzientzia arimaren ahotsa da; grinak gorputzaren ahotsa dira. Harritzekoa al da, askotan, bi mintzaira horiek kontrakoa esatea? Orduan, zeini entzun behar zaio? Arrazoimenak askotan nahasi egiten gaitu, gehiegitan izaten dugu hura baztertzeko joera, baina kontzientziak ez gaitu inoiz nahasten, hura da gizakiaren egiazko gida: kontzientzia arimari dagokio, sena gorputzari dagokion neurri berean; senari jarraitzen dionak natura obeditzen du eta ez du galtzeko inolako beldurrik. Ideia hori garrantzitsua da, jarraitzen zuen nire ongileak, eten behar nuela ikusita: «Utz nazazu pixka batean luzatzen hori argitu ahal izateko».

Gure ekintzen moralitate guztia guk geuk daukagun epaian datza. Ongia ongia dela egia bada, gure bihotzaren muinean eta gure ekintzetan aurkitu beharra dago, eta norberak praktikatzen duela sentitzea da justiziaren lehenengo saria. Ontasun morala gure izaerarekin bat badator, gizakia ona baldin bada bakarrik eratuko da ongi, eta arima osasuntsua izango du. Baina hori horrela ez bada, eta gizakia izaeraz gaiztoa

balitz, orduan ezingo lioke usteltzeari utzi, eta gizakiaren ontasuna naturaren aurkako akatsa baino ez litzateke. Lagun hurkoari kalte egiteko egina litzateke, otsoak bere harrapakinari lepoa mozteko egina den bezala; gizakia otso ankerrena baino animalia gaiztoagoa litzateke; eta bertuteak kontzientziaren ausikiak baino ez lizkiguke utziko.

Itzul gaitezen gure baitara, lagun gaztea! Azter dezagun, interes pertsonalak albo batera utzita, nora garamatzaten gure joerek. Zer ikuskizunek pozten gaitu gehiago, hurkoaren tormentuak ala haren zorionak? Zer da guretzat egiteko samurrena, eta egin eta gero inpresio atseginagoa uzten diguna, ekintza eskuzabala edo gaiztakeria? Zerk pizten du zure interesa antzerkietan? Plazera hartzen al duzu okerkeriekin? Negar egiten al duzu horien egileek jasotzen duten zigorragatik? Guztia berdin zaigu, diote, gure interesetik kanpo; eta, alderantziz, laguntasunaren eta gizatasunaren gozoak gure penak kontsolatzen ditu; gure plazerak ere norekin partekatu izango ez bagenu oso bakarrik egongo ginateke, eta miserableegiak izango ginateke. Gizakiaren bihotzondoan inolako moralik ez badago, nondik nora miresten ditu ekintza heroikoak eta zoratzen da arima handiak maitatzen? Bertutearenganako gogo handi horrek ba al du harremanik gure interes pribatuarekin? Zergatik izan nahiago nuke Katon, bere barrenak urratu zituena, Zesar garailea baino? Ederra denaren maitasuna ken diezaiegun gure bihotzei, eta xarma osoa kenduko diogu bizitzari. Ikus itzazu sentimendu zoragarri horiek grina zitalekin ito dituen arima estua, eta, beste hori bere baitan hain kontzentratua, bere burua besterik maitatzen ez duena, horrek ere ez du estasirik, haren bihotz izoztua ez da pozez taupadaka hasten; samurtasun gozoak ez ditu haren begiak bustitzen; ez du ezerekin gozatzen; zorion gabeak ez du sentitzen, ez da bizi, jadanik hilda dago.

Lurraren gainean dauden gaiztoen kopurua, hala ere, gutxi dira; gutxi dira hilotz-arima horiek, haien interesetatik kanpo zuzena eta ona denaren aurrean sentiberatasunik ez dutenak. Bidegabekeria ez dugu gustuko izaten, baldin eta aprobetxatzen ez badugu; gainerakoetan errugabea babestu nahi izaten dugu. Ikus dezagun edozein kaletan nahiz bidetan biolentziazko edo bidegabekeriazko ekintzaren bat; segituan bihotzaren erditik haserre- eta sumindura-sentimendu bat altxatuko da, eta zapalduaren alde ateratzera eramango gaitu; baina betebehar indartsuago batek geldiaraziko gaitu, eta legeek errugabetasuna babesteko eskubidea kenduko digute. Aldiz, bihozberatasun-

eta eskuzabaltasun-ekintzaren bat deigarri gertatzen bazaigu, zer-nolako miresmena, zer-nolako maitasuna iradokitzen digun horrek! Zein da bere buruari esaten ez diona: beste horrenbeste egin nahi nuke? Duela bi mila urte gizaki bat gaiztoa ala zintzoa izan zen ala ez, ez zaigu askorik inporta; halere, egunotan gertatu izan balira bezala interesatzen zaizkigu antzinako historiako gertaerak. Eta niri zer Katilinaren krimenak? Haren biktima izateko beldurrik al dut? Zergatik izan diot beldurra nire garaikidea balitz bezala? Ez ditugu gaiztoak gorrotatzen kalte egiten dutelako bakarrik, gaiztoak direlako baizik. Ez dugu soilik zoriontsuak izan nahi, hurkoaren zoriona ere nahi dugu, eta zorion hori handitu egiten da, ezer ez zaigunean kostatzen. Azkenik, zoritxarrekoei errukia diegu, eta horien gaiztakeriaren baten lekuko izanez gero, sufritu egiten dugu. Ankerrenek ere ez lukete jakingo joera horretan erabat sostengatzen, askotan haien buruarekin kontraesanetan sartzen baitira. Ibiltariei ostu dien lapurrak pobrearen biluztasuna estaltzen du; eta eraile basatienak ere zorabioa duen gizakiari laguntza ematen dio.

Krimen ezkutuak sekretuan zigortzen dituen eta askotan agerian uzten dituen kontzientziako harraren garrasiaz hitz egiten da. Ai! Gutariko zeinek ez du entzun horren ahots gogaikarria? Esperientziaz hitz egiten dugu; eta hainbeste tormentu ematen digun sentimendu tiraniko hori ito nahi genuke. Naturaren esana egin dezagun, nolako gozotasunez gobernatzen duen ezagutuko dugu, baita hura entzun eta gero zer-nolako xarma aurkitzen den norberari buruzko testigantza ona ematean ere. Gaiztoa izutu egiten da, eta alde egiten du, bere baitatik kanpora ateratzen entretenitzen da, begi urduriak inguruan jartzen ditu eta objektu dibertigarriren bat bilatzen du; beti triste egongo litzateke satira mikatzik gabe, edo burla iraingarririk gabe; haren plazer bakarra barre burlatia da. Justuaren sosegua, ordea, barnekoa da; haren barreak ez du gaiztakeriarik, poza baizik; haren iturria bere baitan dauka; beti alai, bai bakarrik, bai zirkulu baten erdian dagoenean ere; eta ez du poza lortzen inguratzen zaizkion horien kontura; aldiz, poza igorri egiten die guztiei.

Begira iezaiezu munduko nazio guztiei, eta azter itzazu historia guztiak. Hainbeste gurtza arraro eta ankerren artean, eta halako izaera- eta ohitura-aniztasun horren artean, guztietan justiziaren eta zintzotasunaren antzeko ideiak, eta ongiaren eta gaizkiaren antzeko kontzeptuak aurkituko dituzu. Antzinako paganismoa jainko

gorrotagarriez erditu zen, lurrean gaizkile gisa zigortuko zituztenak, eta zorion gorenaren irudia osatzeko krimenak egiten eta grinak asetzen besterik erakusten ez zutenak. Baina bizioa, aginte sakratua jantzia, alfer-alferrik jaitsi zen atseden betierekotik lurrera, sen moralak uxatu baitzuen gizakien bihotzetatik. Jupiterren gehiegikeriak ospatzen zituztenek Xenokratesen neurritasuna miresten zuten; Lukrezia garbiak Venus lizuna gurtzen zuen; Erromatar ausartak Beldurrari eskaintzen zizkion sakrifizioak, beraren aita elbarritu zuen jainkoari dei egiten zion eta, azkenik, bere aitaren esku hil zen batere kexarik gabe. Gizaki handienek Jainko mespretxagarrienak zerbitzatu zituzten. Baina lurrean jainkoena baino indartsuagoa zen naturaren ahots santua errespetatzen zen, eta ematen zuen hark errudunekin batera baztertzen zuela krimena zeruan.

Hargatik, gure arimen sakonean bada justiziaren eta bertutearen berezko printzipio bat eta, horren arabera, gure ereduen kontra bada ere, gure ekintzak eta besteenak epaitzen ditugu onak edo txarrak diren aldetik, eta printzipio horri kontzientzia deritzot nik.

Baina hitz horren inguruan toki guztietako sasijakitunen oihuak entzuten ditut: haurtzaroko akatsak, hezkuntzaren aurreiritziak! Deiadar egiten dute aho batez. Giza espirituan ez dago ezer esperientziaz jaso ez dena, eta jaso ditugun ideien arabera epaitzen dugu edozein gauza. Are gehiago, nazio guztien akordio begi-bistako eta unibertsal hori baztertzen ausartzen dira eta, gizakien epaiaren ahobatezkotasun distiratsuaren kontra, haiek soilik ezagututako eredu ulergaitzen bat bilatu nahi dute ilunpetan; herri baten gaiztakeriak naturaren joera guztiak suntsitu ahal izango balitu bezala, eta munstro bat aurkitu izanagatik guztiak munstroak balira bezala. Baina, zertarako balio diote Montaigne eszeptikoari justiziaren kontra dagoen ohitura bat munduko izkina batean baztertzeko egiten dituen ahaleginek? Idazle entzutetsuei kentzen dien agintea bidaiari susmagarriei emateko balioko al dio? Baina tokiko kausetan oinarrituta dauden eta ezagutzen ez ditugun ustezko hainbat usadio arrarok suntsitu ahal izango ote dute beste gaietan guztiz kontrakoak diren eta bakarrik horretarako ados dauden herri guztien parte-hartzearekin lortutako ondorio orokorra? Ai, Montaigne! Zure zintzotasunaz eta egiazaletasunaz harrotzen zaren hori, izan zaitez egiazale eta egiazkoa, baldin eta filosofo bat hori izan badaiteke, eta esadazu

lurrazaleko zer herritan har daitekeen krimentzat norberaren fedea gordetzea, errukitsu, ongile eta eskuzabal izatea; non hartzen den destainaz fede onekoa eta ohore eskasekotzat jotzen.

Bakoitzak interesagatik laguntzen dio ongi publikoari. Zertara dator justua bere kaltean laguntza ematera? Nola joango da hiltzera interesagatik? Argi dago nor bere alde baino ez dela ari; baina ongi morala kontuan hartzen ez badugu, gaiztoen ekintzak baino ezin izango genituzke azaldu interes propioarekin, eta sinets daiteke hortik harago joateko saiorik ez dela egingo. Filosofia gorrotagarria litzateke ekintza bertutetsuak eragotziko balitu; edo zailtasunak gainditzeko asmo apalak eta bertuterik gabeko motiboak besterik ikusiko ez balitu; edo Sokrates zital bihurtu eta Regulo iraintzera behartuko balu. Antzeko doktrinak sortuko balira gure artean, naturaren ahotsa eta arrazoimenarena horien kontra altxatuko lirateke etengabe, eta haien jarraitzaileetariko bat bera ere ez lukete onartuko, ezta fede onekoa balitz ere.

Ez dut eztabaida metafisikoetan sartzeko asmorik; horiek gure ahalmena gainditzen dute eta, sakonean, ez dute inora eramaten. Jadanik esan dizut ez dudala zurekin filosofatu nahi, zure bihotza entzuten lagundu nahi zaitut bakarrik. Filosofo guztiek oker nagoela frogatzen badute, aski izango dut zuk arrazoia dudala sentitzen baduzu.

Horretarako, gure sentimendu naturalak eta kanpotik hartutako ideiak bereiztea nahikoa da, guk ezagutu baino lehen sentitzen baititugu lehenak; guk ez dugunez ikasten gure ongia nahi izaten eta gaizkia uxatzen, orduan borondate hori naturak eman digu, ona denarekiko maitasuna eta gaiztoa denarekiko gorrotoa guganako maitasuna bezain naturalak dira. Kontzientziaren ekintzak ez dira epaiak, sentimenduak baizik. Gure ideia guztiak kanpotik datozen arren, hautematen dituzten sentimenduak gure baitan daude, eta haiei esker ezagutu ditzakegu gure arteko adostasuna edo desadostasuna, eta errespetatu edo baztertu behar ditugun gauzen arteko egokitasuna edo desegokitasuna.

Guretzat existitzea sentitzea da; gure sentiberatasuna adimena baino askoz lehenagokoa da, eta ideiak izan baino lehen sentimenduak izan ditugu. Gu izatearen arrazoia dena dela, sentiberatasunak iraungo dugula aurreikusi du, eta gure izaerarako egokiak diren sentimenduak eman dizkigu, eta horiek, behintzat, jatorrizkoak direla

ezin da ukatu. Sentimendu horiek, gizabanakoaren kasuan, honako hauek dira: norberaren buruarenganako maitasuna, minari beldurra izatea, heriotzaren aurreko izua, eta ongizatearen desira. Baina gizakia izaeraz gizartekoia baldin bada, edo izateko ahalegina egiten badu, haren espeziearen beste sentimendu batzuen eraginez izango da, non eta ez den uste beharrizan fisikoak gizakiak elkartu beharrean banandu egiten dituela. Bere buruarekiko eta besteekiko harreman bikoitz horrek osatzen duen sistema moralak sortzen du kontzientziaren bultzada. Ongia ezagutzea ez da ongia maitatzea; gizakiak ez dauka ezagutza hori berez, baina, arrazoiak ezagutzera ematen dionean, haren kontzientziak hori maitatzera bultzatzen du: sentimendu horixe da berezkoa dena.

Laguna, hortaz, ez dut sinesten kontzientziaren berehalako printzipioa azaldu ezin denik gure izatearen ondorioen bidez, arrazoia alde batera utzirik. Eta ezinezkoa izango balitz, ez litzateke beharrezkoa izango: giza genero osoak onartzen eta aitortzen duen printzipioa ukatzen duten horiek ez dute frogatzen ez dela existitzen baina, hala ere, baieztatzen dute; existitzen dela baieztatzen dugunean, haiek bezain oinarri sendoa dugu, baina gure alde ditugu barneko lekukotasuna eta bere burua aurkezten duen kontzientziaren ahotsa. Adimenaren lehenengo argi-izpiek itsutzen bagaituzte eta begiratutako objektuak nahasten badizkigute, itxaron dezagun begi ahulak berriz ireki eta indartu arte; berehala berrikusiko ditugu objektu berberak arrazoimenaren argien menpean, naturak erakutsi dizkigun bezalaxe: edo izan gaitezen sinpleagoak, eta ez hain hutsalak; mugatu gaitezen gugan aurkitzen ditugun lehenengo sentimenduetara, ikasteak behin eta berriz eramango baikaitu beti horietara, naturak galarazten ez digunean.

Kontzientzia! Kontzientzia! Sen jainkotiarra, ahots hilezkor eta zerutiarra; izaki ezjakin eta mugatuaren, baina adimentsu eta askearen gida segurua, ongiaren eta gaizkiaren hutsik gabeko epailea, gizakia Jainkoaren antzeko bilakatzen duzuna, zuk zeuk egiten duzu bikaina haren izatea, eta moralak haren ekintzak; zu gabe piztien gainean altxatzen nauen ezer ez dut nigan sentitzen, ez bada okerretik okerrera galtzearen pribilegio tristea, araurik gabeko adimenaren eta printzipiorik gabeko arrazoimenaren laguntzaz.

Zeruari eskerrak, filosofiaren aparatu izugarri horretatik kanpo, gizaki izan gaitezke jakintsuak izan gabe ere, eta bizi, bizitza morala ikasten emateko beharrik izan gabe, zeren ahalegin gutxiagorekin gida seguruago bat baitaukagu giza iritzien labirinto horretan. Baina gida hori existitzen dela jakitea ez da nahikoa, ezagutzen eta jarraitzen jakin behar da. Bihotz guztiei hitz egiten badie, zergatik entzuten dute hain gutxik? Hara, naturaren hizkuntzak esaten diguna beste guztia ahaztarazi egiten digulako. Kontzientzia lotsatia da, erretiroa eta bakea maite ditu; munduak eta zaratak izutzen dute: sortu dituen aurreiritziak dira haren etsairik amorratuenak; haien aurrean, edo alde egiten du, edo isildu egiten da; horien ahots zalapartatsuak harena itzaltzen du, eta ez du entzuten uzten: fanatismoa ausartzen da hura desitxuratzen eta krimena haren ordez izendatzen. Behin eta berriz baztertuz gero nahigabetzen da; ez digu hitz egiten, ez digu erantzuten, eta, hain denbora luzean mespretxatu ondoren, baztertzeak eman zuen bezainbesteko lana emango du berriro deitzeak.

Zenbatetan akitu nauen ikerketetan nigan sentitzen nuen hoztasunak! Zenbatetan pozoitu zituzten tristurak eta asperraldiak nire lehenengo gogoetak eramanezin bilakatu arte? Nire bihotz idorrak egia maitatzeko ardura motel eta epela besterik ez zuen erakusten. Neure buruari esaten nion: «Zertarako tormentatu ez dagoena bilatzen? Ongi morala kimera bat da; zentzumenen plazeretatik kanpo ez da gauza onik. Behin arimaren plazeren gustua galdu eta gero, zein zaila den berriro eskuratzea! Eta eskuratzeko zein zaila inoiz eduki ez bada!». Bizitza osoan bere buruarekin kontent eta garaile izateaz pozik egotearen oroitzapena izateko ezer ere egin ez duen halako gizaki miserablea existituko balitz, gizaki hori ez litzateke bere burua ezagutzeko gauza izango; eta haren izaerari zein ontasun komeni zaion sentitu gabe, nahitaez gaiztoa eta betiko zoritxarrekoa izango da. Baina sinesten al duzu lur osoan badela haren bihotza ongia egiteko tentaldian erortzen inoiz utzi ez duen halako gizaki ustela? Tentaldi hori hain da naturala eta goxoa, ezen ezin baitzaio beti eutsi; eta behin sortutako plazeraren oroitza nahikoa da behin eta berriz hartaz gogoratzeko. Zoritxarrez, oso zaila da hura asebetetzea; mila arrazoi egon ohi da bihotzaren joerak baztertzeko; zuhurtzia faltsuak gizakiaren niaren mugen artean estutzen du; mila ahalegin egin behar da horiek gainditzeko. Ongi egin izanaz poztea ongi egin izanaren saria da, eta merezi izan eta gero irabazten da sari hori. Ez dago ezer atseginagorik bertutea salbu,

baina horrekin gozatu behar da hori ikusi ahal izateko. Hasieran, bertutea besarkatu nahi dugunean, alegiako Proteo-ren antzera, mila forma izugarri hartzen ditu, eta egiazko itxura jasan dutenei baino ez die erakusten.

Interes komunaren alde hitz egiten zidaten sentimendu naturalen eta nire baitan guztia jartzen zuen arrazoimenaren arteko borrokaren erdian nengoen; aukera horretatik atera gabe geldituko nintzen bizitza osoan, gaizkia egiten eta ongia maitatzen, eta, beti neure buruaren kontra, izpi berriek nire bihotza argiztatu ez zuten arte, nire iritziak finkatzen dituen egiak nire portaera ziurtatu ez zuen arte, eta neure buruarekin ados jarri ez nintzen arte. Alferrikakoa da bertutea soilik arrazoimenean oinarritzea, baina oinarri sendoagorik eman diezaiokegu? Bertutea, esaten dute, ordena maitatzea da, baina nire ongizatearen gainetik jarri behar al dut maitasun hori? Emadazue arrazoi argi eta nahikoa den bat nahiago izateko. Egia esanda, hori esaten dutenen ustezko printzipioa hitz-joko bat besterik ez da; nik ere esan dezaket bizioa ordenaren maitasuna dela, beste zentzu batean hartuz. Sentimendua eta adimena dauden toki guztietan nolabaiteko ordena morala dago. Zintzoa osotasunera moldatzen da, eta gaiztoak guztia bere menpera egokitzen du. Gaizto hori gauza guztien erdia bilakatzen da; besteak, erradioa neurtzen du eta zirkunferentzian gelditzen da; hortaz, Jainkoa den erdi komunaren arabera kokatuta dago zintzoa, eta, ondorioz, baita haren izaki diren gainerako zirkulu zentrokide guztien arabera ere. Jainkotasuna existituko ez balitz, gaiztoak bakarrik arrazoituko luke, eta zintzoa burugabe bat besterik ez litzateke.

Seme, senti al zenezake nola arindu daitekeen bat, giza iritzien handikeria agortu eta grinen mikatza dastatu ondoren, eta norberarengandik gertu, jakinduriaren bidea, bizitza honetako lanen saria eta etsipena sortu digun zorionaren iturburua aurkitzen direnean! Gizakien bidegabekeriak nire bihotzetik ia ezabatu dituen lege naturalaren betebehar guztiak berriro idazten dira betiereko justiziaren izenean, hark ezartzen dizkit eta betetzen ditudala ikusten du. Izaki handiaren ekintza eta lanabesa besterik ez naiz sentitzen; ongia nahi duen Izakia eta egin egiten duena, eta, nire borondatea berarenarekin bat etorriz gero eta nire askatasuna berariaz erabiliz gero, nire ongia ere egingo duena: ezarri duen ordenarekin konforme nago, eta ziur naiz egunen batean ni neu ere ordena horretaz gozatuko naizela eta zoriona aurkituko dudala; baina ba al da

zorion atseginagorik guztia ongi dagoen sisteman ordenatuta sentitzea baino? Minez nagoenean, pazientziaz jasaten dut amestuz nirea ez den gorputz batetik datorrela eta laster pasatuko dela. Lekukorik gabe ekintza ona egin badut, badakit ikusia dela, eta bizitza honetan dudan portaera kontuan hartzen dut beste bizitzarako. Bidegabekeriaren bat sufritzen badut esaten diot neure buruari: guztia gobernatzen duen Izaki zuzenak jakingo du ni saritzen; gorputzaren beharrek eta nire bizitzaren miseriek jasangarriagoa egiten didate heriotzaren ideia. Lotura gutxiago egongo da hausteko guztia utzi behar den egunean.

Zergatik dago nire arima zentzumenen menpe eta esklabo egiten nauen eta traba egiten didan gorputz honi lotuta? Ez dakit, bada: Jainkoaren sekretuen berri izan al dut nik? Baina, halere, susmo apalen bat izan dezaket ausarkeriarik gabe. Eta neure buruari esaten diot: «Gizakiaren espiritua aske eta garbi gelditu izan balitz, zer merezimendu izango luke ezarrita ikusiko lukeen eta nahasteko inolako interesik izango ez lukeen ordena jarraitzeak eta maitatzeak?» Zoriontsu izango zen, egia da; baina mailarik gorena faltako zitzaion, bertutearen aintza eta norberarenganako onespena; aingeruen antzekoa izango zen, eta gizaki bertutetsua haiek baino gehiago izango zen, dudarik gabe. Arima lokarri indartsu eta ulertezinez kateatuta dago gorputz hilkorrarekin, eta gorputz horri iraunarazteko zaintzak guzti-guztia horrekin lotzera darama; ordena orokorra ikusi eta maitatu ahal izan arren, horren kontra jartzen da; orduan, askatasuna egoki erabili izana merezimendu eta sari bilakatuko da, eta zorion aldaezina prestatuko du haren lehenengo borondateari eutsiz eta lurreko grinak borrokatuz.

Bizitza honetan daukagun urritasun-egoera dela eta, zilegi da gure lehenengo joerei jarraitzea; baina, gure bizio guztiak guregandik badatozkigu, zergatik kexatuko gara haien menpe egoteaz? Zergatik aurpegiratzen dizkiogu gauzen egileari egiten ditugun kalteak eta gure kontra altxatzen ditugun etsaiak? Ez diezaiogun gizakiari eraso; ona izango da beti, penarik gabe, eta beti zoriontsua izango da kontzientziako harrik gabe. Krimena egitera behartu dituztela diotenak gezurtiak bezain gaiztoak dira: ez al dute ikusten hainbeste kexa sortzen dien ahulezia haien ekintza dela, lehenengo ankerkeria haien borondatetik datorrela, behin eta berriz tentaldietan eroriz haien gogoz kontra ari direla eta, azkenik, jasanezinak egiten zaizkiela? Jadanik ez dago haien esku gaiztoak

eta ahulak izateari uztea, baina haien esku egon da horretara ez iristea. Zein erraz izango ginatekeen geure buruaren eta geure grinen jabe, baita bizitza honetan ere, baldin eta, gure ohiturak eskuratu baino lehen eta gure espiritua irekitzen hasten denean, adimenari ezagutzen ez dituen eta balioetsi ahal izateko ezagutu behar dituen objektuen ardura emango bagenio, baldin eta geure burua benetan argitu nahi izango bagenu, ez besteen aurrean erakusteko, baizik eta gure naturaren arabera jakintsuak eta onak izateko, eta gure betebeharrak betetzen zoriontsuak izateko! Hori ikastea aspergarria eta neketsua iruditzen zaigu, horretaz pentsatzen dugunean, bizioak itota eta gure grinetara emanda gaudelako. Ongia eta gaizkia ezagutu baino lehen finkatzen ditugu gure epaiak; hortaz, neurri oker horren arabera ez diogu deusi duen balioa ematen.

Adin batean bihotza, oraindik, librea baina aldi berean sutsua, geldiezina da, eta bihotz horrek ezagutzen ez duen zoriona duda-mudazko jakin-minez bilatzen du, baina zentzumenak nahasita, haren irudi hutsalena hartzen du, eta ez dagoen tokian aurkitu duela uste du. Ilusio horiek denbora gehiegi iraun dute nigan. Ai! Beranduegi ezagutu nituen, eta ezin izan ditut guztiz suntsitu: sortzen dituen gorputz hilkor horrek bezainbeste iraungo dute. Zenbat eta gehiagotan ni limurtzen saiatu, are gutxiago engainatzen bainaute; direnagatik ezagutzen ditut; mespretxatu egiten ditut, eta, nire zorionaren objektu gisa ikusi beharrean, oztopotzat hartzen ditut. Halaxe, gorputzaren trabetatik libre, kontraesanik gabe, banaketarik gabe, ni izango naizen unea iristea nahi dut, eta zoriontsu izateko nire burua baino ez dut behar izango; horren zain nagoen bitartean, zoriontsua naiz bizitza honetan ere, horren gaitzek ez dutelako niretzat kontatzen, bizitza hau nire izatearekiko arrotz ikusten dudalako, eta horretatik atera dezakedan ongi guztia nire esku dagoelako.

Kontenplazio bikainetan trebatzen naiz, zorion, indar eta askatasunezko egoera horretara ahalik eta gehien hurbildu ahal izateko lehenbailehen. Unibertsoaren ordenaz pentsatzen dut, ez sistema hutsekin azaltzeko bakarrik, hura etengabe miresteko eta unibertsoan sentitzen den haren egile jakintsua gurtzeko baizik. Harekin mintzatzen naiz, haren esentzia jainkotiarrez betetzen ditut nire ahalmenak, haren onurek hunkitzen naute, haren dohainak bedeinkatzen ditut, baina ez dut otoitzik egiten. Zer eskatuko diot? Gauzen bilakaera nigatik alda dezala? Nire aldeko mirariak

egin ditzala? Nahi al nuke nik, gauza guztien gainetik haren jakinduriak ezarritako eta haren probidentziak iraunarazitako ordena maitatu behar duen honek, halako ordena nire erruz nahastea? Ez, horrelako eskaera ausartegia onartu beharrean, zigortu egin beharko litzateke. Ongia egiteko ahalmena ere ez diot eskatzen. Zergatik eskatuko diot jadanik eman didana? Ez al dit eman kontzientzia ongia maitatzeko, arrazoia ezagutzeko eta askatasuna hautatzeko? Gaizki egiten badut, ez dut aitzakiarik; nahi dudalako egiten dut: nire borondatea alda dezala eskatzea hark niri eskatzen didana eskatzea da, berak lan egitea eta nik soldata kobratzea nahi izatea da; nire mailarekin pozik ez egotea, gizakia ez izatea nahi izatea da, eta, existitzen denetik kanpoko zerbait nahi izatea desordena eta gaizkia nahi izatea da. Justiziaren eta egiaren iturburua, Jainko bihozbera eta ona! Konfiantza guztia zugan jarrita, zure borondatea egin dadila da nire bihotzaren desirarik gorena. Nirea zurearekin elkartuz, zuk egiten duzuna egiten dut, zure ontasunarekin konformatzen naiz, eta saria den zorionik gorena aldez aurretik gozatzen dudala uste dut.

Baina, nire buruaz fidatzen ez naizen neurrian, eskatzen diodan gauza bakarra, edo hori baino gehiago haren justiziatik espero dudana, nire akatsa zuzentzea da, baldin eta galtzen banaiz edota akats horrek arriskuan jartzen banau. Fede onez ari banaiz ere, ez naiz hutsezina: egiazkoenak iruditzen zaizkidan iritziak ere faltsuak izan daitezke; zer gizonek ez dio bereari eusten? Zenbat daude denean ados? Engainatzen nauen ilusioa nigandik dator, eta hura da sendatzen ahal nauen bakarra. Ahal izan dudan guztia egin dut egia lortzeko, baina haren iturria oso goian dago: urrutiago joateko indarrak falta zaizkidanean, zeren errudun izango naiz ni? Hari dagokio nigana hurbiltzea.

Sutsuki mintzatu zen abade ona, hunkituta zegoen, baita ni ere. Orfeo jainkotiarra lehenengo himnoak kantatzen eta gizakiei jainkoen gurtza erakusten entzuten ari nintzela uste izan nuen. Baina nik kontrako hainbat arrazoi eman behar nizkiola ikusten nuen: ez nion bat bera ere aipatu, sendoak baino deserosoak zirelako, eta pertsuasioa haren alde zegoelako. Haren kontzientziaren ahotsak hitz egiten zidan neurrian, nireak hark esandakoa berresten zuela iruditu zitzaidan.

Azaldu berri dizkidazun sentimenduak, esan nion, berriagoak iruditzen zaizkit ez dakizun hori aitortzen duzunagatik, sinesten duzunaz esaten duzunagatik baino. Gutxi gorabehera teismoa edo erlijio naturala aurkitzen dut zure hitzetan, kristauek guztiz kontrakoa den ateismoarekin eta erlijio ezarekin nahasita aurkezten dutena. Baina nire fedearen oraingo egoeran, zure iritziak onartzeko, jaitsi beharrean, igo egin beharko nuke, eta zaila iruditzen zait zu zauden tokian egotea, zu bezain jakintsua izan gabe. Gutxienez zu bezain zintzoa izateko galdegin nahi diot neure buruari. Barne-sentimenduak eraman beharko ninduke zure eredua onartzera; eta zuk zeuk erakutsi didazu denbora luzean isiltasuna agindu bazaio, berriz deitzea ez dela une bateko kontua izango. Bihotzean daramatzat zure arrazoibideak, eta pentsatu egin behar dut horietaz. Hortaz, ongi pentsatu eta gero, zu bezain konbentzituta gelditzen baldin banaiz, nire azken apostolua izango zara eta ni zure hil arteko jarraitzailea izango naiz. Baina, jarrai ezazu niri irakasten. Jakin behar dudanaren erdia besterik ez didazu eta esan. Hitz egidazu errebelazioaz, Eskriturez, dogma ilun horietaz; nire haurtzarotik noraezean utzi naute, eta orain arte, ezin pentsa eta sinets ditzaket, onartu edo baztertu behar ditudan jakin gabe.

Bai, seme, esan zidan ni besarkatuz, amaituko dut pentsatzen dudana zuri esaten; ez dut eta nire bihotza erdizka ireki nahi. Baina zure desira niri agertzea beharrezkoa zen, zurekin inolako erreparorik ez izateko baimena ematen didalako. Orain arte erabilgarria izan daitekeen eta erabat konbentzituta naukan guztia kontatu dizut. Gelditzen zaidan ikerketa guztiz ezberdina da: nahasketa, misterioa, iluntasuna besterik ez dut ikusten, eta zalantza eta mesfidantza besterik ez dut. Ikaratuta erabakitzen dut, eta iritzia esan beharrean nire zalantzak esaten dizkizut. Zure sentimenduak egonkorragoak balira, nireak azaltzeko duda-mudatan egongo nintzen, baina zauden egoeran, nik bezala pentsatuz irabaziko duzu. Bestela, ez eman nire azalpenari arrazoiak ematen dion ahalmena baino gehiago: ez dakit-eta zuzen ari naizen. Argudiatzen denean zaila da aldeko jarrerarik ez hartzea; baina gogora ezazu nire hemengo baieztapen guztiak zalantzarako gaiak baino ez direla. Bila ezazu zuk zeuk egia: nik fede ona besterik ez dizut eskaintzen.

Erlijio naturala ikusten duzu nik egindako azalpenean: oso arraroa da besterik behar izatea. Baina nola iritsiko naiz behar hori ezagutzera? Zein izango da nire errua, baldin

eta Jainkoa zerbitzatzen badut hark nire adimenari emandako argien arabera, eta nire bihotzari emandako sentimenduen arabera? Zer-nolako garbitasun morala, zer dogma, gizakiarentzat erabilgarri eta haren egilearentzat ohoragarri, ondoriozta dezaket doktrina positibo batetik, eta hori gabe nire ahalmenen erabilera egokiari esker ondorioztatu ezin dudana? Erakuts iezadazu zer gaineratu dakiekeen lege naturalaren betebeharrei Jainkoaren aintzarako, gizartearen ongirako eta nire onurarako, eta zer-nolako bertutea sorraraziko duzun nire gurtzaren ondorio ez den gurtza berri batetik. Jainkoaren ideia handienak arrazoi hutsak ematen dizkigu. Azter ezazu naturaren ikuskizuna, errepara iezaiozu barne-ahotsari. Jainkoak ez al die dena esan gure begiei, gure kontzientziari, gure adimenari? Zer besterik esan behar digute gizakiek? Haien errebelazioek jainkoa gutxietsi besterik ez dute egiten, gizakien grinak leporatzen zaizkio eta. Nik ikusten dut dogma partikularrek Izaki handiaren ideiak argitu beharrean nahasi egiten dutela, goratu beharrean zitaldu egiten dutela, hura inguratzen duten misterio asmaezinei kontraesan absurdoak gehitzen dizkietela; gizakia harro, intolerante eta anker bihurtzen dutela, eta bakea ezartzetik urrun burdina eta sua daramatzatela lurrera. Hori guztia zertarako den ona galdetzen diot nire buruari erantzuten jakin gabe. Gizakien krimenak eta giza generoaren miseriak baino ez dut ikusten.

Esaten didate nolabaiteko errebelazioa beharrezkoa dela Jainkoak gizakiei nolako zerbitzua eskatzen dien erakusteko, eta hori frogatzeko gizakiek ezarri dituzten gurtza arraroak aipatzen dira, eta ez dute ikusten halako aniztasuna errebelazio horien ameskerien ondorioa dela. Herriek Jainkoak hitz egin dezala nahi izan dutenean, bakoitzak bere erara hitz eginarazi dio, eta nahi izan duena esanarazi dio. Erlijio bakarra egongo litzateke lurraren gainean, baldin eta Jainkoak gizakiaren bihotzari esan ziona entzun izan balitz.

Gurtzak uniformea behar zuen izan, onartzen dut. Eta ezartzeko orduan, hain garrantzitsua al zen ahalmen jainkotiarraren ospe guztia ideia hori izateko? Ez dezagun nahas erlijioaren zeremoniala erlijioarekin. Jainkoak eskatzen duen gurtza bihotzarena da, eta hori zintzoa denean, beti uniformea izaten da. Handikeria ero hutsa da imajinatzea Jainkoak interesik duela apaizaren janzkerarekin, esaten dituen hitzen ordenarekin, aldarean egiten dituen keinuekin, eta haren belaunikaldi guztiekin. Ene

laguna, nahiz eta gora jotzen ahalegindu, beti lurrean egongo zara. Jainkoak espirituaren eta egiaren gurtza nahi du: erlijio guztien, herri guztien eta gizaki guztien betebeharra da hori. Kanpoko gurtzari dagokionez, ordena onerako uniformea izan behar badu, poliziaren kontu bat besterik ez da, eta horretarako ez dago errebelazioaren inongo beharrik.

Ni ez nintzen gogoeta horietatik guztietatik hasi. Heziketaren aurreiritziak eta gizakia beti dagokion esferatik gorago eraman nahi izaten duen berekoitasun arriskutsu horrek bultzatuta, nire burutazio ahulak ezin izan nituen Izaki handiarenganaino altxatu, eta hura nigana jaisten saiatzen nintzen. Haren naturaren eta nirearen artean jarri duen horren urrutiko harremana hurbiltzen saiatzen nintzen. Komunikazio zuzenagoak eta argibide bereziak nahi nituen, eta, Jainkoa gizakiaren antzeko egitearekin konforme ez eta, nire parekoen artean pribilegiatua izateko, naturaz gaindiko argiak nahi nituen; gurtza bakarra nahi nuen; Jainkoak niri esatea nahi nuen besteei esan ez ziena, edo nik bezala ulertu ez zutena.

Erlijio ororen elementuak besterik ez nuen aurkitu erlijio naturalaren dogmetan, eta nik ondorioztatu nuen ideia eta sinestun guztiek gurtza argiago batera iristeko hartutako abiapuntua berberak zirela. Munduan agintzen duten eta elkarri gezurra eta okerra salatzen dioten denetariko sekta horiek ikusten nituen, eta galdetzen nuen: Zein da ona? Eta bakoitzak erantzuten zidan: Nirea, nire jarraitzaileek eta nik bakarrik pentsatzen dugu zuzen, gainerako guztiak daude oker. Eta nola dakizue zuen sekta ona den ala ez? Jainkoak esan duelako. Eta nork esan dizu Jainkoak esan duela? Ongi dakien nire apaizak. Hori sinesteko esaten dit, eta sinetsi egiten dut, beste zer edo zer esaten dutenek gezurretan ari direla ziurtatzen dit, eta nik ez ditut entzuten.

«Bai zera! Egia ez al da, bada, bat?», pentsatzen nuen; eta niretzat egia dena gezurra izan al daiteke beste batentzat? Norabide egokiari jarraitzen dionaren eta galtzen denaren metodoak berberak baldin badira merezimendu edo erru gehiago izango du batek besteak baino? Haien aukera zoriaren ondorio bada, haiei leporatzea bidegabekeria da, herri batean edo bestean jaio izana saritzea edo zigortzea da eta. Jainkoak era horretara epaitzen gaituela esatera ausartzea haren justizia laidotzea da.

Edo erlijio guztiak dira onak eta atseginak Jainkoarentzat, edo baldin eta gizakiei agindu dien baten bat baldin bada, edo ez ezagutzeagatik zigortuko balitu, Jainkoak erlijio hori egiazko bakartzat hartzeko eta ezagutzeko egiazko eta begi-bistako arrastoak emango lituzke. Arrasto horiek garai guztietakoak eta toki guztietakoak dira, neurri berean senti ditzakete gizaki guztiek: handiek eta txikiek, jakintsuek eta ezjakinek, europarrek, indiarrek, afrikarrek eta basatiek. Lurraren gainean erlijio bakar bat egongo balitz, eta erlijio horretatik kanpo betiko nahigabea besterik ez balego, eta mundu guztian fede oneko gizaki bakar batek berak ere horren ebidentzia izango ez balu, erlijio horren Jainkoa tirano guztietatik zitalena eta krudelena izango litzateke.

Bene-benetan bilatzen al dugu egia? Beraz, ez diezaiegun ezer eman jaiotzaren eskubideari, ezta gurasoen eta apaizen aginteari, eta jar dezagun haurtzarotik ikasi dugun guztia kontzientziaren azterketaren eta arrazoimenaren menpean. Haiek niri agindu arren: «Mendera ezak hire arrazoimena», nahasten nauenak ere esan dezake: «Arrazoiak behar ditut nire arrazoimena menderatzeko».

Lehenago azaldu berri dizudan horretara mugatzen da unibertsoaren behaketaren bidez eta nire ahalmenen erabilera egokiaren bidez lortu ahal izan dudan teologia guztia. Gehiago jakiteko, baliabide apartetara jo behar da, eta horiek ezin dira egon gizakien agintepean; beste gizaki batek nire espeziekoa izanik ezagutu dezakeen guztia nik neuk ere ezagutu dezaket, eta oker egin dezake nik oker egin dezakedan bezalaxe: hark esaten duena sinesten dudanean, ez da esaten duenagatik, frogatzen duenagatik baizik. Hortaz, gizakien lekukotasuna nire arrazoimenarena besterik ez da, eta Jainkoak egia ezagutzeko eman dizkidan dohain naturalei ez die ezer gaineratzen.

Egiaren apostolu horrek, zer esan behar didazu nik epaitu ezin dudana? Jainkoak berak hitz egin du: haren errebelazioa entzun ezazue. Hori beste gauza bat da. Jainkoak hitz egin du! Horra hitz garrantzitsua, bai horixe. Eta nori hitz egin dio? Gizakiei hitz egin die. Zer dela eta ez dut nik halakorik entzun? Haren hitza errepikatzearen ardura beste gizaki batzuei eman dielako. Ulertzen dut! Gizakiak dira Jainkoak esana esan nahi didatenak. Jainkoaren ahotik entzutea nahiago izango nuen; ez zion lan handirik emango eta ni lilura guztietatik babestuta egongo nintzen. Horietatik libratu egiten zaituzte, hark bidalitakoen misioa agerian utziz. Nola? Mirarien bidez. Eta non daude

mirari horiek? Liburuetan. Eta nork egin ditu liburu horiek? Gizakiek. Eta nork ikusi ditu mirari horiek? Horiek baieztatzen dituzten gizakiek. Alajaina! Beti gizakien lekukotasunak! Beti beste gizaki batzuek eman dutenaren berri ematen didate niri ere! Zenbat gizaki Jainkoaren eta nire artean! Halere ikus, azter, konpara eta egiazta dezagun. Jainkoak lan hori guztia nire bizkarretik kendu izan balu, borondate on gutxiagorekin zerbitzatuko nukeen ala?

Kontuan har ezazu, laguna, zer-nolako eztabaida izugarrian sartu naizen; zer-nolako erudizio erraldoia behar izan dudan antzinako gauza urrutikoenetara jotzeko, profeziak, errebelazioak, gertaerak, munduko herri guztietan proposatutako fede oroigarriak aztertzeko, neurtzeko eta erkatzeko, eta, garaiak, tokiak, egileak eta uneak seinalatzeko… Zer-nolako kritika zuzena behar izan dudan benetako piezak ustezkoetatik bereizteko; kontrako arrazoiak erantzunekin eta itzulpenak originalekin konparatzeko; lekukotasunen inpartzialtasuna, zentzu ona eta haien argiak epaitzeko; zerbait kendu, gehitu, alderantzikatu, aldatu edo faltsutu duten jakiteko; dituzten kontraesanak agerian uzteko, etsaien isiltasunak zer pisu duen haiei leporatzen zaizkien gertaerak epaitzeko; alegazio horien berri izan duten ala ez; ea alegazio horiek kontuan hartu dituzten erantzuteko orduan; ea gure liburuak nahiko komunak ote ziren haien eskuetara iristeko; ea izan dugun nahikoa fede on haien liburuak gure artean zabaltzeko aukera ematean, eta ea utzi dugun haien objekzio sendoenak egin zituzten bezala irauten ala ez.

Behin oroigarri horiek guztiak zalantza ezinak diren aldetik onartu eta gero, segituan horien egileen misioaren frogetara pasatu behar da; zoriaren legeak eta balizko aukerak ongi ezagutu behar dira, zein iragarpen bete daitekeen miraririk gabe epaitzeko; hizkuntza originalen izaera ezagutu behar da, hizkuntza horietan iragarpena dena eta figura erretorikoa besterik ez dena bereizteko; zein gertaera dauden naturaren ordenaren barruan, eta zein ez, erabakitzeko; gizaki zuhur batek noraino txundi ditzakeen bai inozoen begiak, bai pertsona ilustratuenak, esan ahal izateko; mirakulu batek zer motatakoa izan behar zuen bilatzea, eta zer-nolako zilegitasuna izan behar zuen, ez bakarrik sinetsia izateko, horretaz zalantza egiten duena zigortzeko baizik; egiazko eta gezurrezko mirakuluen frogak konparatzea, eta horiek bereizteko arau sendoak bilatzea, azkenik, Jainkoak zergatik aukeratu zituen bere hitza

frogatzeko, frogatzeko hain behar handia duten bitartekoak, gizakien sineskortasunari burla egingo balio bezala, eta haiek konbentzitzeko egiazko bitartekoak saihestu nahi izan balitu bezala.

Eman dezagun maiestate jainkotiarrak gizaki bat bere borondate sakratuen ordezko bilakatzeko lana har dezakeela; arrazoizkoa eta zuzena al da, azalpenik eman gabe, giza genero osoari eskatzea ministro horren ahotsa obeditzeko? Zuzena al da egiaztagiri bakartzat soilik ematea hainbat zeinu partikular, jende ilunen artean eginak eta, hortaz, gainerako gizaki guztiek entzutez bakarrik ezagutuko dituztenak? Mundu guztian herri xeheak eta inozoek ikusi dituzten mirakuluez diotena egiatzat hartuko balitz, sekta bakoitza izango litzateke on bakarra; mirakulu gehiago egongo lirateke gertaera natural baino; eta mirakulurik handiena, fanatiko jazarriak dauden lekuetan, batere mirakulurik ez egotea izango litzateke. Naturaren ordena aldaezina da gobernatzen duen esku jakintsua hobekien erakusten duena; salbuespenak maiz gertatuko balira, nik ez nuke jakingo zer pentsatu; eta gehiegi sinesten dut Jainkoarengan berak merezi ez dituen halako mirariak onartzeko.

Gizonen bat era horretara hitz egiten etorriko balitz: «Hilkor horiek, Gorenaren borondatea zuei iragartzera nator; ezagutu ezazue bidaltzen nauena nire ahotsean. Eguzkiari ibilbidea alda dezala agintzen diot, izarrei beste era batera antola daitezela, mendiei txikiagotu daitezela, olatuei altxa daitezela, lurrari beste itxura bat har dezala». Miragarri horien aurrean nork ez luke naturaren epailea ezagutuko! Baina naturak ez ditu engainatzaileak obeditzen; horien mirakuluak gurutze-bideetan egiten dira, basamortuetan, haien geletan, eta dena sinesteko prest dagoen ikusle kopuru txikia nahi duten moduan liluratzen dute. Zenbat begizko lekukotasun behar ditu mirakulu batek sinesgarria izateko? Mirakuluak zuen doktrina frogatzeko eginak badira eta frogatu behar badira, zertarako balio dute? Horretarako egitea ere ez du merezi.

Azkenik, iragarritako doktrinaren azterketa garrantzitsuena falta da; baina, Jainkoak lurrean mirariak egiten dituela esaten dutenek batzuetan deabruak imitatzen dituela uste dutenez gero, mirakulu ikertuenekin ere ez dugu ezer aurreratzen; eta behin faraoiaren aztiak, Moisesen aurrean ere, Moisesek Jainkoaren aginduz egiten zituen zeinu berberak errepikatzen ausartu baziren, zergatik ez zuten hura gabe hartu nahi

izan aginte berbera, antzeko tituluak baldin bazituzten? Hortaz, doktrina mirakuluaren bidez frogatu eta gero, mirakulua doktrinaren bidez frogatu behar da, deabruaren ekintza eta Jainkoarena ez nahasteko. Zer pentsatzen duzu gurpil-zoro horretaz?

Doktrina horrek, Jainkoarengandik datorrenak, jainkotasunaren seinale sakratua izan behar du; seinale horrek arrazoibideak espirituan hartaz marraztu dituen ideia nahasiak argitu behar dizkigu, baita proposatu ere gurtza bat, moral bat, eta haren esentzia pentsagarri egiten diguten ezaugarrien araberako arau egokiak. Baina, gauza absurdoak eta burugabekeriak besterik erakutsiko ez baligu, gure kideenganako herra eta gureganako izua besterik sortuko ez baligu, irudikatuko balu Jainko haserre bat, jeloskorra, mendekaria, partziala, gizakien gorrotatzailea, gerraren eta borrokaldiaren Jainkoa, beti suntsitzeko eta birrintzeko prest, beti tormentuez eta penaz hitz egiten duena, eta baita errugabeak ere zigortzeaz hanpatzen dena, halako Jainko izugarriak ez luke nire bihotza erakarriko, eta ez nuke nire erlijio naturala inola ere utziko beste horren erlijioa besarkatzeko, nahitaez aukeratu egin beharko nuke eta. Haren jarraitzaileei esango nieke: «Zuen Jainkoa ez da gurea». Herri bakarra aukeratzen hasten dena, eta gainerako giza generoa galarazten duena ez da gizaki guztion aita; haren izaki gehienak betiko surtara zigortzen dituena ez da arrazoiak erakutsi dizkidan Jainko bihozbera eta ona.

Dogmei dagokienez, argiak, argigarriak eta guztiz begi-bistakoak izan behar dutela esaten dit nire arrazoimenak. Erlijio naturala gutxiegi denez, erakusten dizkigun egia handiak iluntasunean uzten dituelako: errebelazioari dagokio gizakiaren espirituarentzat era sentigarrian erakustea, eta gizakiak pentsatzeko modukoak izatea, hark sinets ditzan. Adimenak fedea indartu eta finkatu egiten du; zalantzarik gabe, erlijio guztien arteko onena argiena da: predikatzen didan gurtza misterioz eta kontraesanez betetzen dituenak harekin konfiantzarik ez izaten erakusten dit. Nik gurtzen dudan Jainkoa ez da ilunpetakoa; ez dit adimena eman gero erabiltzea debekatzeko: nire arrazoimena menperatzeko agindua ematea horren egilea laidotzea da. Egiaren ministro batek ez luke inoiz nire arrazoia menderatuko; aldiz, argitu egingo luke.

Edozein giza aginte albo batera utzi dugu; eta hori gabe, ez dakit nola konbentzi dezakeen gizon batek beste bat, arrazoimenaren kontrako doktrina predikatuz. Eman dezagun bi gizon hauek topo egiten dutela une batez, eta bila dezagun zer esan liezaioketen elkarri alderdi bakoitzeko ohiko hizkuntza zakarrean.

INSPIRATUA

Arrazoimenak osotasuna atala baino handiagoa dela erakusten dizue, baina nik, Jainkoaren partez, erakusten dizuet atala osotasuna baino handiagoa dela.

ARRAZOIZALEA

Eta nor zara zu Jainkoa kontraesanetan ari dela esatera ausartzeko? Norengan sinetsiko dut lehenago, betiko egiak arrazoimenaren bidez erakusten didanarengan edo zugan, haren partez halako burugabekeria iragartzen didazunarengan?

INSPIRATUA

Nigan, nire heziketa positiboa delako, eta hark bidali nauela zalantzarik gabe frogatuko dizudalako.

ARRAZOIZALEA

Nola? Jainkoak bere aurkako lekukotasuna ematera bidaltzen zaituela frogatuko al didazu? Eta zer-nolako frogak izango dituzu nire buruan sartzeko Jainkoak zure ahotik hitz egiten didala eta ez berak eman didan adimenetik?

INSPIRATUA

Hark eman dizun adimena! Gizon zeken eta harro hori! Bekatuak usteldutako arrazoimenean galtzen den lehenengo fedegabea bazina bezala!

ARRAZOIZALEA

Jainkoaren gizasemea, zu ere ez zinateke bere misioaren frogatzat harrokeria besterik ematen ez duen lehenengo iruzurgilea.

INSPIRATUA

Zer! Filosofoek ere irainak botatzen!

ARRAZOIZALEA

Batzuetan, santuek etsenplua ematen dietenean.

INSPIRATUA

Hara! Nik Jainkoaren izenean hitz egiten dudanez gero, esateko eskubidea dut.

ARRAZOIZALEA

Zure pribilegioak erabili baino lehen, ongi legoke zure tituluak erakustea.

INSPIRATUA

Egiazkoak dira nire tituluak, zeruak eta lurrak dira nire aldeko lekukoak. Arren eskatzen dizut arretaz jarrai diezaiezula nire arrazoibideei.

ARRAZOIZALEA

Zure arrazoibideak! Ez dakizu zer ari zaren esaten. Nire arrazoimenak nahasi egiten nauela niri irakastea ez al da zutaz hark esaten didana ezeztatzea? Arrazoimena ukatu nahi duen edonork hura erabili gabe konbentzitu beharko du. Beraz, demagun arrazoituz konbentzitu nauzula; nola jakingo dut nire arrazoimena, esaten didazuna onartzera naramana, bekatuak usteldua dagoen ala ez? Gainera, zer froga, zer erakusbide erabil zenezake inoiz hark suntsitu behar duen axioma baino begi-bistakoagorik? Guztiz sinesgarria da silogismo on bat gezurra izatea; esaterako, atala osotasuna baino handiagoa dela esatea.

INSPIRATUA

A zer-nolako aldea! Nire frogek ez dute erantzun beharrik; naturaz gaindiko ordenakoak dira.

ARRAZOIZALEA

Naturaz gaindikoak! Zer esan nahi du hitz horrek? Ez dut ulertzen.

INSPIRATUA

Naturaren ordenan gertatutako aldaketak, profeziak, mirakuluak eta mota guztietako mirariak.

ARRAZOIZALEA

Mirakuluak! Mirariak! Ez dut horrelakorik ikusi.

INSPIRATUA

Beste batzuek ikusi dute zure ordez. Lekukotasun andanak… herrien lekukotasuna…

ARRAZOIZALEA

Herrien lekukotasuna naturaz gaindiko ordenakoa al da?

INSPIRATUA

Ez, baina aho batezkoa denean, ukaezina da.

ARRAZOIZALEA

Arrazoimenaren printzipioak baino erantzun ezinagorik ez da ezer, eta ez dago burugabekeriarik onartzea gizakien lekukotasunean oinarrituz. Berriro diot, ikus ditzagun naturaz gaindiko frogak, giza generoaren lekukotasuna ez da eta horrelakoa.

INSPIRATUA

Ai bihotz gogorra! Graziak ez dizu hitz egiten.

ARRAZOIZALEA

Ez da nire errua; zuk diozun bezala, graziari galdetzen jakiteko, aldez aurretik jaso behar izan da. Hortaz, has zaitez haren ordez hitz egiten.

INSPIRATUA

Ai! Horixe egin dut, eta zuk ez nauzu entzun. Baina zer diozu profeziez?

ARRAZOIZALEA

Lehenik, esaten dut ez dudala inoiz profeziarik entzun eta ez dudala mirakulurik ere ikusi, eta gaineratzen dut ez diodala aginpiderik aitortzen inolako profeziari.

INSPIRATUA

Deabruaren morroi hori! Eta zer dela eta ez dute izango profeziek zure gainean inolako aginpiderik?

ARRAZOIZALEA

Hori horrela izateko bateraezinak diren hiru gauza gertatu beharko lirateke; hots, ni profeziaren lekukoa izatea, gertaeraren lekukoa izatea eta profeziarekin batera zoriz ez dela gertatu frogatzea; hortaz, hura geometria-axioma bat baino zehatzago, argiago eta argigarriago izanda ere, zoriz egindako iragarpen baten argitasunak ez du ezinezkoa egiten hura betetzea, eta hori gertatzen denean ere, ez du ezer frogatzen iragarri duenaren alde. Ikus ezazu zertan gelditzen diren zure ustezko naturaz gaindiko frogak, zure mirariak eta zure profeziak: beste baten fedeari buruzko hori guztia sinetsi beharko dut, eta nire arrazoimenari hitz egiten dion Jainkoaren agintea gizakien agintearen menpean jarri beharko dut. Nire espirituak pentsatzen dituen betiko egiek erasoren bat jasoko balute, nik ez nuke inolako zalantzarik izango; eta Jainkoaren izenean hitz egiten didazula batere seguru egon gabe, ni ez nengoke ziur ezta haren existentziaz ere.

Zailtasun handiak dira horiek, seme, eta askoz gehiago ere badaude. Elkar debekatzen eta baztertzen duten hainbeste erlijioren artean, bat bakarra da ona; ona den bat baldin bada. Ez da nahikoa bat aztertzea ona dena ezagutu ahal izateko, guztiak aztertu behar dira; eta gaia dena dela, ezin da kondenatu entzun aurretik; nahitaezkoa da objekzioak eta frogak konparatzea; bakoitzak besteei zertan egiten dien aurre eta elkarri zer erantzuten dioten jakin behar da. Zenbat eta frogatuago iruditu sentimendu bat, are gehiago bilatu beharko dugu hainbeste gizaki zertan oinarritzen diren horrela

ez ulertzeko. Oso inozoa litzateke sinetsiko lukeena kontrako alderdiaren arrazoiak jakiteko nahikoa dela norberaren alderdiko doktoreei entzutea. Non dira fede ona erakusten duten teologoak? Non haien aurkarien arrazoiei aurre egiteko pitzatzen hasten ez direnak? Bakoitza bere alderdian nabarmentzen da, baina bada bere ingurukoen artean dituen frogekin oso harro dagoena, eta froga berberekin beste alderdi bateko jendeen artean ergelarena egingo lukeena. Liburuetan ikasi nahi al duzu? A zer-nolako erudizioa eskuratu behar den! Zenbat hizkuntza ikasi behar diren! Zenbat liburutegi arakatu behar diren! Zein irakurketa erraldoia egin behar den! Nork gidatuko nau aukeratzerakoan? Zaila izango da herri batean kontrako alderdiaren liburu onenak aurkitzea, eta are zailagoa gainerako alderdienak aurkitzea; aurkituz gero, segituan aurka egingo diete. Beti izaten da ez dagoena oker egin duena, eta, askotan, ziurtasunez esandako arrazoi txarrek mespretxuz azaldutako arrazoi onak ezabatzen dituzte. Gainera, askotan ez dago ezer liburua bezain nahasgarria, eta idatzi dituenaren sentimenduak ere ez ditu leialtasunez irudikatzen. Fede katolikoa Bossuet-en liburuaren arabera epaitu nahi izan duzunean gure artean bizi eta gero, zure ideietatik urrun egon zara. Ikusi duzu protestanteei erantzuteko erabiltzen den doktrina ez dela herriari irakasten zaiona, eta Bossueten liburuak ez duela gure sermoien irakaspenekin zerikusirik. Erlijio bat epaitzeko, ez da horren aldekoen liburuetan ikasi behar, herrian ikasi behar da; hori guztiz bestelakoa da. Nork bere tradizioak, zentzua, ohiturak, aurreiritziak ditu, sinesmen horren espirituaren osagaiak eta ongi epaitzeko elkartu beharrekoak.

Zenbat herri handik ez duen libururik inprimatzen eta ez dituen gureak irakurtzen! Nola epaituko dituzte gure iritziak? Eta nola epaituko ditugu guk haienak? Guk barre egiten diegu, haiek mespretxatzen gaituzte, eta gure bidaiariei burla egiten badiete, hori bera sentitzeko ez zaie falta gure artean bidaiatzea besterik. Zer herritan ez dago jende zentzuduna, fede onekoa, egiaren lagun zintzoa, eta hori besarkatzeko ezagutu besterik behar ez duena? Halere, bakoitzak bere gurtzan ikusten du egia, eta burugabeak aurkitzen ditu beste nazioetakoak. Beraz, edo gurtza arrotz horiek ez dira iruditzen zaizkigun bezain arraroak, edo gure gurtzetan aurkitzen ditugun arrazoiek ez dute ezer frogatzen.

Europan hiru erlijio nagusi daude. Batek errebelazio bakarra onartzen du, bi beste batek, eta hiru azkenak. Bakoitzak besteak gorrotatzen eta madarikatzen ditu, eta itsukeria, zurruntasuna, egoskorkeria eta gezurra leporatzen die. Zer gizaki inpartzial ausartuko da haien artean epaitzen, aldez aurretik ez baditu haien frogak ongi neurtu, eta ez baditu haien arrazoiak entzun? Errebelazio bakarra besterik onartzen ez duena antzinakoena da, eta seguruena ematen du; hiru onartzen dituena modernoena da, eta kontsekuenteena ematen du; bi onartzen dituena eta hirugarrena baztertzen duena izango litzateke onena, baina aurreiritzi guztiak aurka ditu; begi-bistakoa da horrek ez duela ez hankarik ez bururik.

Hiru errebelazio horien liburu sakratuei jarraitzen zieten herriek ezagutzen ez zituzten hizkuntzetan daude idatzita. Juduek ez zuten hebreera ulertzen; kristauek ez zuten ez hebreera ez grekoa ulertzen; ez turkiarrek ez persiarrek ez dute arabiera ulertzen; eta arabiar modernoek ere ez dute Mahomaren hizkuntzaz hitz egiten. Ez al da gizakiak hezteko modu «sinplea» beti ulertzen ez duten hizkuntza erabiltzea? Esango didate: liburuak itzultzen dira. Erantzun ederra! Nork ziurtatuko dit liburu horiek ongi itzulita daudela, eta ea posible den hori horrela izatea? Eta Jainkoak hainbeste denboran hitz egin badie gizakiei, zertarako beharko luke interpreterik?

Ez nuke inoiz pentsatuko gizaki orok jakin behar duena liburuetan gordeta dagoenik, ezta liburu horiek irakurri ezin izan dituena eta ulertzen ez dituena nahi gabeko ezjakintasunera zigortu behar denik ere. Beti liburuak! Alajaina! Europa liburuz gainezka dagoenez, europarrek nahitaezkotzat hartzen dituzte, konturatu gabe lurraren hiru laurdenetan ikusi ere ez dituztela egin. Ez al dira guztiak gizakiek idatziak? Zergatik beharko ditu eginbeharrak ezagutzeko? Eta liburu horiek idatzi baino lehen, zer baliabide zituen eginbeharrak ezagutzeko? Hortaz, edo berez ikasiko ditu betebehar horiek, edo jakitetik salbu dago.

Gure katolikoek zarata handia ateratzen dute Elizaren agintearekin; baina zer irabazten dute horrekin, baldin eta aginte hori ezartzeko beste sektek zuzenean haien doktrina inposatu ahal izateko bezainbesteko froga-aparatu handia behar badute? Elizak erabakitzen du Elizak erabakitzeko eskubidea duela. Ez al da hori ongi frogatutako agintea? Atera zaitez hortik, eta gure eztabaida guztietara itzuliko zara.

Judaismoak kristautasunaren kontra esaten duena aztertu duen kristau asko ezagutzen al duzu? Zerbait ikusi duen inor baldin bada, kristauen liburuetan ikusi behar izan du. Aurkarien arrazoiak ezagutzeko modu ederra! Baina zer egin daiteke? Gure arteko inor ausartuko balitz judaismoaren aldeko liburuak argitara ematen, egilea, editorea eta liburu-saltzailea ere zigortuko genituzke. Diziplina hori erosoa eta segurua da beti arrazoia izateko. Oso erraza da hitz egitera ausartzen ez den jendeari aurka egitea.

Juduekin hitz egiteko aukera duten gure artekoek ere ez dute horrenbeste aurreratu. Zorigabe horiek gure menpe sentitzen dira; haien gainean erabilitako tiraniak izutu egiten ditu; badakite zein gutxi kostatzen zaion karitate kristauari bidegabekeria eta ankerkeria; nola ausartuko dira ezer esatera gu biraogile gisa salatzeko arriskurik izan gabe? Diruzalekeriak bultzatzen gaitu, eta arrazoirik ez izateko aberatsegiak dira. Jakintsuenak eta argienak dira zentzudunenak. Miserableren bat konbertituko duzu, bere sekta iraintzeko ordainduz; eskale zital askori hitz eginaraziko diezu, eta etsiko dute zu losintxatzeko; haien ezjakintasuna eta koldarkeria garaituko duzu; bitartean, haien doktoreek zure ergelkeriari irri egingo diote ezkutuan. Baina, uste al duzu kontra egin dakiekeela seguru sentitzen diren tokietan? Sorbonan, egunaren argia bezain gardena da Mesiasen iragarpenak Jesus Kristorekin erlazionatzen direla. Amsterdamgo errabinoen artean, oso argi dago ez dutela horrekin zerikusirik izango. Ez dut inoiz pentsatuko juduen arrazoi guztiak entzun ditudala, harik eta haiek estatu libre bat, eskolak eta arriskurik gabe hitz egiteko eta eztabaidatzeko unibertsitateak lortzen ez dituzten arte. Orduan bakarrik jakin ahal izango dugu zer duten esateko.

Konstantinoplan turkoek beren arrazoiak ematen dituzte, baina han gu ez gara ausartzen gureak esatera; han jasatea tokatzen zaigu. Turkoek Mahomarenganako eskatzen diguten errespetu berbera, guk harengan sinetsi ez arren, guk juduei eskatzen diegu Jesukristorenganako, haiek ere ez sinetsita ere. Gaizki egiten al dute turkoek? Ongi egiten al dugu guk? Zer zuzentasun-printzipiotara joko dugu arazoa konpontzeko?

Giza generoaren bi herenak ez dira ez judu, ez mahometano, ez kristau; eta zenbat milioi gizakik ez duten inoiz Moisesi, Jesus Kristori edo Mahomari buruz ezer entzun! Hori ukatzen da, baina gure misiolariak edonora iristea defendatzen da. Erraza da hori esatea. Baina Afrikako barnealde ezagutu gabe hartara joango al dira, europarrik inoiz

iritsi ez den leku haietara? Mediterraneo aldeko Tartariara joango al dira, atzerritar bat inoiz hurbildu ez den eskualde horretara, Aita Santuaren aditzerik ez eta lama handia nekez ezagutzen duten horda ibiltariei zaldiz segitzera? Amerikako kontinente erraldoietara joango al dira, non nazio askok oraindik ez baitakite beste mundu bateko herriek haien mundua zapaldu dutela? Japoniara joango al dira, han amarruak egiteagatik betiko egotzi zituzten herrira, haien ahaideak belaunaldiz belaunaldi azpikari zuhurtzat ezagutzera eman diren eta arreta hipokrita erakutsiz poliki-poliki inperioaren jabe egitera joan ziren herrira? Asiako printzeen harenetara joango al dira, milaka esklabori Ebanjelioa iragartzera? Zer egin dute munduko parte horretako emakumeek haien artean fedea predikatzeko inongo misiolaririk ez egoteko? Giltzapean bizi izateagatik infernura joango al dira guztiak?

Zer aurreratuko litzateke Ebanjelioa lur osoan iragarriko balitz ere? Seguru asko, lehenbiziko misiolaria herri batera iritsi bezperan baten bat hilko zen haren hitza entzun ahal izan gabe. Hortaz, esadazu zer egingo genukeen arazo horrekin. Baldin eta unibertso osoan Jesus Kristoren legea entzun gabeko gizaki bat besterik ez balego ere, gizaki bakar horrekiko objekzioa giza generoaren laurdenarekiko bezain indartsua izango litzateke.

Ebanjelioaren ministroen mezuak urrutiko herriei entzunarazi zizkietenean, zer esan ote zieten haien hitzari esker egiaztapen zehatzena eskatzen ez zuena arrazoiz sinets zezaketen? Zuek duela bi mila urte munduaren beste aldean, ez dakit zer herrixkatan, jaiotako eta hildako Jainko bat iragartzen didazue, eta zuk esaten didazu misterio horretan sinesten ez duten guztiak kondenatuko direla. Gauza arraroegiak dira, hain azkar sinesteko, ezagutzen ez dudan gizaki baten agintean oinarrituak! Zuen Jainkoak zergatik kokatu ditu nigandik hain urruti ikastera behartu nahi nauen gertakari horiek? Krimena al da antipodetan gertatzen dena ez jakitea? Asma al dezaket nik beste hemisferioan herri hebrearra eta Jerusalem izeneko hiri bat egon direla? Hori ni ilargian gertatzen denaz ere jakitera behartzea bezala da. Niri irakastera zatozela esaten didazu; baina zergatik ez zenion nire aitari irakatsi? Edo zergatik kondenatzen duzu agure hori inoiz jakin ez duelako? Zure alferkeriagatik zigortu behar al da betiko, beste hura, hain ona dena, ongilea eta egia besterik bilatzen ez duena? Izan zaitez fede onekoa, eta jar zaitez nire tokian: begira ezazu ea nik zure testigantza hutsagatik sinets

dezakedan zuk esan dizkidazun gauza sinesgaitz horiek guztiak, eta hainbeste bidegabekeria lotu zuk iragartzen didazun Jainko zuzen horrekin. Utz iezadazu, faborez, hemen ezagutzen ez diren halako miragarriak gertatzen diren urrutiko herri hura ikustera joaten eta jakiten zergatik hartu zuten hiri horretako biztanleek Jainkoa gaizkiletzat. Ez zutela hartu Jainkotzat esaten duzu. Zer egingo dut nik, baldin eta zuri bakarrik entzun badizut hartaz hitz egiten? Gaineratzen duzu zigortuak, sakabanatuak, zapalduak, esklabo hartuak izan direla eta haietako bat bera ere ez dela hiri hartara hurbildu ere egiten. Seguru asko hori guztia merezi izan dute; baina, egungo biztanleek zer esaten dute haien arbasoek egindako jainko-hiltzeaz? Ukatu egiten dute, ez dute Jainkoa Jainkotzat hartzen. Horretarako bazuten han bertan uztea aurrekoen ondorengoak.

Nola! Jainkoa hil den hiri bereko antzinako nahiz oraingo biztanleek ere ez dute onartu, eta zuk nahi duzu nik onartzea, bi mila urte geroago, eta handik bi mila legoara jaio naizen arren! Ez al duzu ikusten, sakratua deitzen duzun eta batere ulertzen ez dudan liburu horri sinesgarritasuna eman baino lehen, zurea ez den beste aho batzuetatik jakin behar dudala, noiz eta nork egin duen, nola gorde den, nola iritsi den zuengana, baztertzen duten herrietakoek zer arrazoi erabiltzen dituzten, nahiz eta haiek zuk bezain ongi jakin erakusten didazun guztia? Ikusten duzu beharrezkoa dela ni Europara, Asiara eta Palestinara joatea, nik neuk dena aztertzera; erotuta egon beharko nuke zu entzuteko hori egin baino lehen.

Diskurtso hori arrazoizkoa iruditzen zait, eta, gainera, defendatzen dut gizaki zentzudunak horrela hitz egin behar duela, eta frogak aurkeztu aurretik, irakasten eta bataiatzen saiatzen den misiolaria urrutiratu behar duela. Baina nik defendatzen dut objekzio berberek antzeko indarra dutela kristautasunaren aurka, baita beste errebelazioen aurka ere. Hortik ondorioztatzen bada egiazko erlijio bakar bat dagoela eta gizaki oro onartzera behartuta dagoela bestela betiko kondena izango lukeelako, bizitza osoa eman beharko da erlijio guztiak ikasten, xehatzen, konparatzen, eta ezarrita dauden herrietan barrena ibiltzen. Inor ez da gizakiaren lehenengo betebeharretik libre, inork ez du bestearen epaiaz fidatzeko eskubiderik. Bere lanbidetik bizimodua ateratzen duen artisauak, irakurtzen ez dakien laborariak, neskatxa fin eta lotsatiak, bere ohetik ia jaiki ezin daitekeen eriak, horiek guztiek ikasi,

meditatu, bidaiatu eta munduan barrena ibili beharko dute. Ondorioz, ez da herri finkorik ezta egonkorrik ere egongo, eta munduko gurtza guztiak egiaztatzera, konparatzera eta aztertzera gastu eta neke handiz joango diren erromesak besterik ez dira egongo lur osoan. Orduan, agur ofizioei, arteei, giza zientziei eta zeregin zibil guztiei: ez dago erlijioaz beste ikasketarik; neke handiz, osasun indartsuena izan duenak, denbora hobekien erabili duenak, arrazoimena hobekien erabili duenak, urte gehien bizi denak zahartutakoan jakingo du zeri egin behar dion jaramon; eta asko lortzea izango da hil baino lehen zer gurtzatan bizi nahi izango duen jakitea.

Metodo hori arindu nahi al duzu eta gizakien aginteari zerbait eman? Berehala emango diozu denari buelta; eta kristau baten semeak ongi betetzen badu azterketa sakon eta inpartzialik gabe bere aitaren erlijioa, zer dela eta egingo luke gaizki turkiar baten semeak bere aitarena hartuko balu? Intoleranteei desafio egiten diet, gizaki zentzuduna aseko duen erantzuna eman dezaten.

Arrazoi horiek direla eta, batzuek nahiago dute Jainkoa bidegabe bihurtu beren dogma ankerrari uko egin baino. Beste batzuek zailtasuna saihesten dute, aingeru bat bidaliz moral egokiarekin bizi izan denari ezjakintasun gaindiezinean irakats diezaion. Zein asmakizun ederra aingeru horrena! Haien makinekin gu esklabo hartzea nahikoa izan ez eta Jainkoa jarri behar dute makina horiek erabiltzen.

Ikus ezazu, seme, zer-nolako burugabekeria dakarten harrokeriak eta intolerantziak, bakoitza bere ideietan tematzen denean, eta giza genero osoak baino arrazoi gehiago izan nahi duenean. Lekukotzat hartzen dut nik gurtzen dudan eta iragartzen dizudan bakearen Jainko hori nire ikerketa guztiak zintzoak izan direla esateko; baina, fruiturik gabeak izan direla eta izango direla ikusita, eta ertzik gabeko ozeanoan sartzen ari nintzela ikusita, atzera egin dut eta jatorrizko ideietan oinarritu dut nire fedea. Ezin izan dut inoiz sinetsi Jainkoak, infernuaren mehatxua dela medio, hainbeste jakitera behartuko ninduenik. Hortaz, nire liburu guztiak itxi ditut. Bakarra dago irekita guztion begien aurrean, eta hori naturaren liburua da; liburu handi eta bikain horretan haren egile jainkotiarra zerbitzatzen eta gurtzen ikasten dut. Irakurtzen ez duenak ez du aitzakiarik, zeren espiritu guztiek uler dezaketen hizkuntzan hitz egiten baitie gizaki guztiei. Uharte desertu batean jaio izan banintz, eta batere gizakirik ikusi ez banu, eta

munduko bazter batean gertatutakoa kontatu ez balidate ere, nik arrazoimena erabiliko banu, landuko banu, Jainkoak emandako berehalako ahalmenak ongi erabiliko banitu, nire kabuz ikasiko nuke hura ezagutzen, maitatzen, haren lanak estimatzen, Hark nahi duen ongia irrikatzen, eta hari gustua emateko nire eginbehar guztiak lurrean betetzen. Zer gehiago irakatsiko dit gizakien jakinduria guztiak?

Errebelazioari dagokionez, hobeto arrazoituko banu edo ikasiagoa izango banintz, beharbada horren egia ikusiko nuke, eta ezagutzeko poza dutenentzat duen erabilgarritasuna ikusiko nuke, baina, eztabaidatu ezin ditudan haren aldeko frogak ikusten ditudan arren, konpondu ezin ditudan objekzioak ere ikusten ditut kontra. Aldeko eta kontrako hainbeste arrazoi sendo dagoenez, nik ez dakit zer erabaki, ez dut onartzen, eta ez dut ukatzen ere; hura onartzeko betebeharra besterik ez dut ukatzen, halako betebeharra Jainkoaren justiziarekin bateraezina delako, eta salbaziorako oztopoak kendu beharrean areagotu egiten dituelako eta giza generoaren gehiengoarentzat gaindiezin bilakatzen dituelako. Gai horretan izan ezik, errespetuzko zalantzan gelditzen naiz. Ez naiz nire burua hutsezintzat hartzeko hain harroa: beste gizaki batzuek erabaki ahal izan dute niri erabakiezina iruditzen zaidana; niretzat arrazoitzen dut, ez haientzat; ez ditut gaitzesten, ez ditut imitatu ere egiten; haien epaia nirea baino hobea izan daiteke; baina ez da nire akatsa horrekin bat ez etortzea.

Berdin-berdin aitortzen dizut Eskrituren maiestateak txunditzen nauela eta Ebanjelioaren santutasunak nire bihotzari hitz egiten diola. Begira iezaiozu filosofoen liburuen handikeriari: zein txikiak diren haren alboan! Halako liburu sinple eta bikaina gizakien emaitza izan al daiteke? Gizaki bakar bat izan al daiteke historia egiten duena? Estilo hori jarraitzaile sutsu batena edo sektario handinahi batena al da? Nolako gozotasuna, nolako ohitura garbiak! Nolako grazia ematen duen jarraibideetan! Nolako maila esaldietan! Nolako jakinduria sakona diskurtsoetan! Nolako argitasuna eta zuzentasuna erantzunetan! Nolako agintea grinen gainean! Non dago harrokeriarik gabe eta ahuleziarik gabe ekiten, sufritzen eta hiltzen dakien gizakia? Non jakintsua? Platonek irudimenezko gizaki zuzena irudikatu zuenean, krimenaren lotsaz estali eta bertutearen sari guztien merezimendua eman zionean, eszenaz eszena Jesus Kristo irudikatu zuen: hain da deigarria antzekotasuna, ezen Aita guztiak konturatu baitira, eta ez dago horretan nahasterik. Nolako aurreiritziak eta itsukeria izan behar dira

Sofronisko-ren semea Mariaren semearekin konparatzen ausartzeko? Alde galanta bien artekoa! Sokratesek, minik eta lotsarik gabe hiltzean, erraz eutsi zion bereari bukaera arte, eta, halako heriotza errazak haren bizitza ohoratu izan ez balu, beharbada zalantza izango genuke ea Sokrates bere jakinduria guztiarekin sofista bat besterik ez ote zen izan. Diotenez, morala asmatu zuen; baina lehenago beste batzuek eraman zuten praktikara; beste batzuek egin zutena esan besterik ez zuen egin, haien ereduak ikasgaietan jarri besterik ez zuen egin. Aristides justua izan zen, Sokratesek justizia zer zen esan baino lehen; Leonidas bere herriaren alde hil zen Sokratesek aberria maitatzeko betebeharra ezarri baino lehen; Esparta neurritsua zen, Sokratesek neurritasuna goraipatu baino lehen; hark bertutea definitu baino lehen, Grezian gizaki bertutetsu asko zeuden. Baina non eskuratuko zituen Jesusek bere ingurukoen artean berak bakarrik eman dizkigun moral jaso eta garbiaren ikaskizunak eta eredua? Fanatismo basatienaren muinetik jakinduria gorena entzunarazi zen, herri guztien arteko zitalena bertute heroikoenen sinpletasunak ohoratu zuen. Sokratesen heriotza, lagunekin lasai asko filosofatzen ari zela, desiratu daitekeen gozoena da; Jesusena espero daitekeen izugarriena da, tormentuen artean hila, iraindua, burlatua eta herri oso batek madarikatua. Sokratesek, kopa pozoitsua hartzen ari zela, bedeinkatu zuen edaria negarrez aurkezten ziona; Jesusek, tormentu izugarria sufritzen ari zela, martirizatzen zutenen alde otoitz egin zuen. Sokratesen bizitza eta heriotza jakintsu batenak badira, Jesusen bizitza eta heriotza Jainko batenak dira. Ebanjelioaren historia nahi bezala asmatua dela esango al genuke? Laguna, ez da horrela asmatzen; eta inork zalantzan jartzen ez dituen Sokratesen gorabeherak Jesus Kristorenak baino frogatu gabeagoak dira. Azkenean, zailtasuna argitu gabe saihestea da hori; ulertezinagoa litzateke gizaki batzuk ados jarrita liburu hori idatzi dutela pentsatzea, batek bakarrik horretarako gaia eman duela sinestea baino. Egile juduek ez zuten inola ere aurkituko halako estilo eta moralik; eta Ebanjelioak hain egiazko ezaugarri handiak, hain deigarriak, hain guztiz imitaezinak ditu, heroia baino harrigarriago gertatuko bailitzateke asmatzailea. Hala ere, arrazoiak onartzen ez dituen eta gizaki zentzudun ororentzat pentsaezinak eta onartezinak diren gauza sinestezinez beterik dago Ebanjelioa. Zer egin hainbeste kontraesanen aurrean? Beti izan behar da zuhurra eta apala, seme; isilean errespetatu behar da ulertu eta baztertu ezin duguna, eta Izaki handiaren aurrean umildu, Hura da-eta egia dakien bakarra.

Horra zein nahigabeko eszeptizismoan erori naizen; baina eszeptizismo hau ez zait penagarri egiten, praktikan ez baita zabaldu ideia nagusienetara, eta honezkero nire betebeharren inguruko printzipioak guztiz erabakiak ditudalako. Jainkoa zerbitzatzen dut nire bihotzaren sotiltasunean. Ez dut ezer jakin nahi nire portaera argitzeko garrantzia duenetik kanpo. Ez naiz batere kezkatzen ekintzetan edo moralean eraginik ez duten eta askoren tormentua diren dogmez. Erlijio guztiak erakunde osasungarritzat hartzen ditut, zeren herri bakoitzean Jainkoa gurtza publiko baten bidez ohoratzeko era uniformea agintzen baitute; denboraren eta lekuaren arabera, guztiek izan dezakete jatorria kliman edo gobernuan, edo herriaren izaeran edota bakoitzak nahiago duen tokiko beste arrazoiren batean. Jainkoa behar bezala zerbitzatzen badute, guztiak iruditzen zaizkit onak. Gurtza nagusia bihotzarena da. Jainkoak ez du omenaldia uxatzen zintzoa baldin bada, era batera edo bestera eskaini. Ene Elizaren zerbitzura deitu nauten bakoitzean, agindu zaizkidan ardurak ahal izan dudan zehaztasun handienarekin bete ditut, bestela kontzientziak aurpegiratuko zidan zerbaitetan nahita huts egingo banu. Erretiro luze baten ondoren, badakizu M. de Mellarede-ren ospeari esker lortu nuela bizimodua ateratzeko nire funtzioak betetzera itzultzeko lizentzia. Hori baino lehen, arintasunez esaten nuen meza, gehiegitan egiten diren gauza serioenak ere askotan egiten diren bezalaxe; nire printzipio berrien arabera, errespetu handiagoarekin ematen dut: betetzen naute Izaki gorenaren maiestateak, haren presentziak eta bere sortzaileaz hain gutxi dakien giza espirituaren eskasiak. Herriaren otoitzak araututako eran eskaintzen dizkiodala kontuan hartzen bada, errito guztiak zaintzen ditut, arreta handiz errezitatzen dut, hitz txikiena eta zeremonia txikiena ere ez galtzen saiatzen naiz: sagaratzearen unea iristen denean, Elizak eta sakramentuaren handitasunak agindutako gaitasun guztien arabera egiteko, nire baitan biltzen naiz; adimen gorenaren aurrean nire arrazoimena baztertzen saiatzen naiz eta neure buruari esaten diot: nor zara zu botere mugaezina neurtzeko? Errespetuz ahoskatzen ditut sakramentuetako hitzak, eta horien eraginei nire esku dagoen fede guztia ematen diet. Misterio ulertezin hori, dena dela, nire bihotzean ez dudanez inoiz ere lohitu, ez naiz azken judizio-eguneko zigorraren beldur.

Azken mailan bada ere, ministerio sakratuaren ohorea jantzia dudan neurrian, ez dut inoiz egingo, ezta esango ere, betebehar bikainak egiteko duintasuna kenduko didan

ezer. Beti azalduko diet bertutea gizakiei, beti ongi egitea aholkatuko diet; eta ahal dudan neurrian eredu izango naiz. Ezin izango zait leporatu gizakiei erlijioa atsegin bihurtzen saiatu ez naizenik, ezta guztiek sinetsi behar dituzten egiazko dogma erabilgarrien bidez haien fedea indartzen saiatu ez naizenik ere: baina Jainkoari ez zaio gustatuko nik intolerantziaren dogma ankerraz haiei hitz egitea, nik hurkoa gorrotatzera bultzatzea, edota beste batzuei kondenatuko direla esatea. Maila nabarmenagoan egongo banintz, halako jarrerak ondorio txarrak ekarriko lizkidake beharbada; baina ni txikiegia naiz beldur izateko, eta nagoen toki baxutik baino beherago erortzerik ere ez dut. Edozer gertatuta ere, ez naiz Jainkoaren justiziaren aurka biraoka hasiko, eta ez dut Espiritu Santuaren kontra gezurrik esango.

Denbora luzean parrokia baten ohorea izateko nahia izan nuen; oraindik ere, baina honezkero ez dut espero. Lagun ona, ez dut apaizgoa baino ezer ederragorik aurkitu. Apaiz on bat ontasunaren ministro bat da, epaile on bat justiziaren ministroa den bezalaxe. Apaiz batek ezin du inoiz gaizki egin; berak ezin badu beti ongia egin, hark eskatzen dionean beti dago bere tokian, eta bere burua errespetaraztea lortzen duenean askotan erdiesten du ongia. Ai! Gure mendietako jende onen zaintza inoiz izango banu! Zoriontsu izango nintzateke, nire eliztarrak zoriontsu egingo nituzkeela iruditzen zait eta. Ez nituzke aberats bihurtuko, baina haien pobrezia partekatuko nuke; pobrezia baino eramanezinago diren tristura eta mespretxua kenduko nizkieke. Ahalegina egingo nuke maita zitzaten adostasuna eta berdintasuna, zeinek miseria uxatzen eta eramangarriago egiten baitute. Ikusiko balute ni ez naizela izango ezertan haiek baino gehiago eta, hala ere, pozik bizi naizela, haien zortearekin kontsolatzen eta ni bezala pozik bizitzen ikasiko lukete. Nire sermoietan gutxiago lotuko nintzateke Elizaren espirituari Ebanjelioaren espirituari baino, hor dogma sinplea da eta morala bikaina, hor praktika erlijioso gutxi dago eta karitate ekintza asko. Zer egin behar den irakatsi aurretik, praktikatzeko ahalegina egingo nuke, haiek beti argi asko ikusteko esaten diedana pentsatzen dudala. Protestanterik egongo balitz auzoan edo parrokian, ez nuke nire eliztarretatik bereiziko karitate kristauari dagokionez, eta konbentzituko nituzke elkar maitatzeko, elkar anaia-arrebatzat hartzeko, erlijio guztiak errespetatzeko eta bakoitza berearen arabera bakean bizitzeko. Nik pentsatzen dut gaizki dagoela bati jaio zenetik duen erlijioa utz dezala eskatzea; hortaz, hori eskatzen duenak bere

buruari ere kalte egiten dio. Argi gardenagorik ez dugun artean, zain dezagun ordena publikoa, herri guztietan legeak errespeta ditzagun, ez dezagun nahas bakoitzaren gurtza; ez ditzagun bultza hiritarrak esana ez betetzera; izan ere, ez dakigu zehazki haientzat ona den beren iritziak beste batzuen ordez uztea eta, aldiz, oso ongi dakigu legeak ez obeditzea gaitz handia dela.

Lagun gaztea, nire fede-aitortza azaldu berri dizut Jainkoak nire bihotzean irakurtzen duen bezala: zuretzat izan da lehena eta, beharbada, inoiz egingo dudan bakarra. Gizakien artean sinesmen onen bat gelditzen den bitartean, ez dira arima lasaiak nahasi behar, ezta sinpleen fedea aztoratu ere konpondu ezin dituzten, urduritzen dituzten eta ezer argitzen ez duten zailtasunekin. Baina behin guztia astindua dagoela, enborra kontserbatu behar da adarren kaltean. Kontzientzia urduriek, dudazkoek, ia itzaliek, baita zureak ere (ikusi dudan egoeran), indartzeko eta esnatzeko beharra dute; eta betiereko egien oinarriaren gainean ezarri ahal izateko, erortzear dauden zutoinak eta oraindik balio dutela ematen dutenak behingoz bota behar dira.

Espiritua ziurtasunera irekitzen den adin kritikoan zaude, bihotzak bere forma eta izaera hartzen ditu, eta bizitza osorako mugatzen da bat, onerako edo txarrerako. Geroago substantzia gogortu egiten da, eta ez ditu inpresio berriak jasotzen. Gazte, jaso ezazu egiaren zigilua oraindik malgua den zure ariman. Nitaz seguruago egongo banintz, zurekin jarrera dogmatiko eta erabakigarria hartuko nuke: baina gizon ezjakina naiz, oker egoteko arriskuan; zer egin dezaket? Nire bihotza ireki dizut sekreturik gabe; segurutzat hartzen dudana hala eman dizut; zalantzak bezala esan dizkizut nire zalantzak, iritziak bezala nire iritziak; zalantzan egoteko eta sinesteko arrazoiak esan dizkizut. Orain zeuk epaitu behar duzu: denbora hartu duzu, hori ardura jakintsua da, eta zutaz ongi pentsarazten dit. Has zaitez zure kontzientzia jartzen argitua izateko egoeran. Izan zaitez zintzoa zeure buruarekin. Nire sentimenduetatik konbentzitu zaituztenak hartu eta baztertu itzazu gainerakoak. Aukera egiteak dakarren arriskuaren aurrean egoteko adina ez zaitu oraindik usteldu bizioak. Gure artean eztabaidatzea proposatuko nizuke, baina eztabaidatzen duena berotzen da, banitatea eta egoskorkeria nahasten dira, eta orduan ez dago fede onik. Laguna, ez zaitez inoiz eztabaidan sar, eztabaidan ez baita ez norbera argitzen, ez besteak ere. Niri dagokidan aldetik, urte asko pentsatzen eman ez dudan arte ez dut erabakirik hartu: eta horri

eutsi egiten diot; nire kontzientzia lasai dago, eta nire bihotza pozik. Nire sentimenduen azterketari berriro ekin nahi banio, egiarekiko maitasun garbienarekin egingo nuke; eta honezkero hain aktiboa ez den nire espirituak hura ezagutzeko aukera gutxiago izango luke. Beraz, nagoenean gelditukо naiz, kontenplaziorako gustua konturatu gabe alferrikako grina bilakatuta, nire betebeharretan ez lasaitzeko eta nire lehenengo eszeptizismoan ez erortzeko handik irteteko indarrik aurkitu gabe. Honezkero igaro da ia nire bizitzaren erdia; gelditzen zaidana aprobetxatzeko eta nire akatsak bertuteekin ezabatzeko denbora besterik ez dut. Okertzen banaiz nire gogoz kontra izango da. Nire bihotzaren muinean irakurtzen duenak ongi daki ez dudala nire itsutasuna maite. Nire argien bidez ezin dut uxatu eta hartatik irteteko gelditzen zaidan bide bakarra bizitza noble bat izatea da; Jainkoak harrietatik semeak eman bazizkion Abrahami, hala merezi baldin duten gizaki guztiek ere eskubidea dute ezagutzaren argiak jasoko dituztela espero izateko.

Nire gogoetek eramaten bazaituzte nik pentsatzen dudan bezala pentsatzera, nire sentimenduak zureak ere izatera, eta gu biok fede-aitortza berbera izatera, horra ematen dizudan aholkua: ez ezazu utz zure bizitza miseriaren eta desesperazioaren tentaldietara hurbiltzen; ez ezazu eraman zure bizitza arrotzen aurrean lotsaz arrastaka, eta utziozu limosnaren ogi mespretxagarria jateari. Itzul zaitez zure sorterrira, berreskura ezazu zure gurasoen erlijioa, eta iraun ezazu bihotz-zintzo, eta ez zaitez inoiz alda: oso sinplea eta oso santua da; lurrean dauden erlijio guztien artean, uste dut hura dela moral garbiena eta arrazoia gehien asetzen duena. Ez zaitez kezkatu bidaiaren gastuekin, emango zaizkizu eta. Ez ezazu izan itzulera umiliagarri baten lotsaizunaren beldurrik; gaizki egitearen erruak eman behar du lotsa, ez gaizki egindakoa konpontzeak. Guztia barkatzen den adinean zaude oraindik, baina adin horretan jadanik ez da bekaturik egiten zigorrik jaso gabe. Zure kontzientzia entzun nahi duzunean, oztopo hutsal ugarik estaliko dute horren ahotsa. Gu bizi garen noraezean, sentituko duzu barkatu ezin den harrokeria dela jaiotzetik jaso dugun erlijioa ez den beste bat aitortzea, eta faltsukeria dela aitortzen dena zintzo ez praktikatzea. Galtzen bagara, epaile subiranoaren tribunalari aitzaki indartsua kenduko diogu. Ez al du lehenago barkatuko elikatu zuten akatsa, aukeratzen ausartu den akatsa baino?

Seme, gorde ezazu beti zure ariman Jainko bat dagoela sinesteko jarrera, eta ez duzu inoiz zalantzarik egingo. Gainerakoan, hartzen duzun partidua hartzen duzula, jakin ezazu erlijioaren betebeharrek ez dutela gizakien erakundeekin zerikusirik; bihotz zuzena Jainkotasunaren egiazko tenplua dela; herri guztietan eta sekta guztietan Jainkoa gauza guztien gainetik dagoela onartzea eta hurkoa norbera bezala maitatzea dela legearen laburpena; ez dagoela betebehar moralik ezartzen ez duen erlijiorik; betebehar horiek baino garrantzitsuagorik ez dagoela, barne-gurtza lehenengoa dela eta federik gabe ez dela inola ere egiazko bertuterik existitzen.

Alde egin ezazu, natura azaltzeko aitzakiarekin, gizakiaren bihotza nahigabetzen duten doktrinak ereiten dituztenetatik, eta haien aurkarien jarrera irmoa baino ehun aldiz baikorragoa eta dogmatikoagoa den itxurazko eszeptizismoa dutenetatik ere. Haiek bakarrik argituak, zintzoak eta fede onekoak direla da jartzen duten aitzakia harroa, haiek hartu dituzten erabaki irmoak onartzera behartu nahi gaituzte, eta haien irudimenak eraikitako sistema ulertezinak eman nahi dizkigute egiazko printzipioen ordez. Gainera, gizakiek errespetatzen duten guztia lurrera botaz, suntsituz eta mespretxatuz, pobreei miseriaren azken kontsolamendua kentzen diete, eta boteretsuei eta aberatsei grinen galga bakarra; krimenaren harra eta bertutearen espiritua errotik ateratzen dute bihotzen muinetatik, eta oraindik giza generoaren ongile gisa hanpatzen dira. Diote gizakientzat egia inoiz ez dela txarra izaten. Nik haiek bezala pentsatzen dut, eta, nire ustez, horrek erabat frogatzen du erakusten dutena ez dela egia.

Gazte, izan zaitez zintzoa eta egiazko harrokeriarik gabe; jakin ezazu ezjakina izaten: horrela ez zara nahasiko eta ez dituzu besteak nahasiko. Inoiz zure dohainen kulturak gizakiei hitz egiteko atakan jartzen bazaitu, zure kontzientziaren arabera hitz egin iezaiezu, txalotuko zaituzten ala ez pentsatzen kezkatu gabe. Gehiegizko jakituriak sinesgarritasun eza dakar. Jakintsu orok sentimendu arrunta baztertzen du, baina horietako bakoitzak berea izan nahi du. Filosofia harroak fanatismora darama. Saihets itzazu mutur horiek; iraun ezazu egiaren bidean tinko, edo zure bihotzaren sinpletasunean horrela iruditzen zaizun horretan, banitatearen edo ahuleziaren eraginez desbideratu gabe. Ausartu zaitez Jainkoa filosofoen aurrean aitortzen, eta gizatasuna intoleranteei azaltzen. Zure alderdiko bakarra izango zara seguru asko,

baina lekukotasuna eramango duzu zurekin batera gizakien lekukotasunaren beharrik izan gabe. Ez du axolarik haiek zu maitatzeak edo gorrotatzeak, edo zure idatziak irakurtzeak edo mespretxatzeak. Esan ezazu egiazkoa dena, egin ezazu ongi dagoena; lurrean dituen eginbeharrak betetzea da gizakiari inporta zaiona, bere alde lanean ari den ala ez ahaztuta.

Seme, nahasi egiten gaituena norberaren interesa da; aldiz, zuzenaren itxaropena da inoiz engainatzen ez duena.